

uk

258. zenbakia / 2014ko urriaren 8a

9



Leioan



Barikuetan jai!

17:30ean, Barandiaran institutuko patioan

Urriak 3	BARIKUETAN JAI GINKANA
Urriak 10	INGURUMEN EGUNA: BEHARRAK GUTXITU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU
Urriak 17	JOLAS ERRALDOI ETA KOLORETSUAK
Urriak 24	KAMISEAK APAINTZEKO TAILERRA
Urriak 31	BETIKO JOLASEN ZIRKUITUA ETA ITURRI TAILERRA
Azaroak 7	SUKALDARITZA TAILERRA: PLATER ORIJINALAK
Azaroak 14	TXOTXONGILO TAILERRA
Azaroak 21	EUSKAL DANTZAK
Azaroak 28	ZIENTZIA EGUNA
Abenduak 5	EUSKATLOIA
Abenduak 12	FUNKY TAILERRA
Abenduak 19	GABONETAKO APAINGARRI ORIJINALEN TAILERRA



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Amando Llamas, K.Oleto, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. PLAZA. Jose Ramon Onandia / Arrate Illaro Etxebarria.
5. IRUDIA. Jauzilariak Martiartun (Erandio).
6. FACEGUK. Plentziako metro-geltoki alboko bidegurutzea segurua da?
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako Elizako plaza.
8. URIBITAKORA. Peio Arondo Barandiaran.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. MUNDUKATUAK. Jon Kareaga Yañez.
11. ERRETRATUA. Olatz Ganboa.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Plentziako Esaera Zaharren txapelketa.
28. ARGAZKIA. Estropada Gorizzen, 1936.
30. BERBETAN. Majed Dibsi Bulbul.
34. FOTOGRAFIA. David Herranz.
40. SAKONEAN. Fracking-a Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Nire gorputza, nire erabakia lehiaketa.
43. MUSIKA. Espaloian taldearen kontzertua Sopelan.
44. LIBURUAK. Literatura berbaldiak Sopelan eta Algortan.
45. KIROLAK. Eskubaloia.
46. ZIENTZIA. "Solido platonikoak", Eduardo San Andres.
47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Eusko label burruntzia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gitarrajole plentziarrak, 30. hamarkada.
54. AITORMENAK. Irune Martinez Santos.

Azala: David Herranz

www.ukaldizkaria.biz



30 Majed Dibsi Bulbul

Berbetan

Palestinar kazetari, politologo eta juristagaz berba egin dugu Bilbon izan dela aprobetxatuz.



11 Olatz Ganboa



54 Irune Martinez Santos

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Arrate Illaro

Ondorio negatibuak

Inoren zer esangoak lotzen dizkigu zangoak. Plentziako Esaera Zaharren Txapelketatik, aipatutako esaera zaharra burutik kendu ezinik nabil.

Ez nintzen Plentzian izan, baina garai berean bota zidan euskaltzale batek ondorengo galdera: ezezagun bati euskaraz hitz egiten diogunean, gure ekintzak izan ditzakeen ondorio negatiboez jabetzen al gara? Zur eta lur utzi ninduen. Zein ondorio negatibo izan dezake autobusa noiz pasako den galdetzeak, *cuándo pasa el autobús* galdetu beharrean? Antza, deseroso sentituko da, izorratzeko ari garela pentsatuko du, eta euskararekiko ezinikusia areagotuko dugu.

Zangoak ez, ezpainak izango ditugu lotuta horren beldurrez baldin bagaude. Naturala da euskaldunok euskaraz galdetzea, uste baino naturalagoa aurrean daukagunak ulertzea. Baina elebakar izanda ere, gutxi izango dira gure hitzak holan interpretatzeko bezain inozoak. Beraz, ez ditzagun geure arazo bihurtu besteen gabeziak.

gu geu

UK-n barna...

Hamaika kontu, milaka hitzordu, makina bat ekitaldi, beste hainbat iritzi, haren esanak eta honen usteak, besteen egitasmoak eta gure egitekoak... Eta albistetik beste horrenbeste jasotzen ditu UK honek.

Uribe Kostako herri guztietatik ibili gara, eta urrunera joateko aukera ere baliatu dugu, oraingoan: Majed Dibsiren eskutik Palestinaraino heldu gara, eta Jon Kareagak Bostonera (AEB) eroan gaitu; eta [FOTOGRAFIA] ataletik abiatuz ere bidaiatzeko aukera izango duzue.

Orrialdeotan barna... bidaia on, irakurle!

Hurrengo hamabostaldira arte!

Iritzia

Jose Ramon Onandia euskara ikasleak Arbel Digital Interaktibo erabiltzearen onurak ezagutarazi gura izan dizkigu hurrengo lerroon bidez:

Arbel Digital Interaktiboa (ADI)

Ikasle baten ikuspuntutik... Uztailaren lehenengo hamabostaldian Zornotzako barnetegian egon nintzen. Bertan ADI (Arbel Digital Interaktiboa) eta ordenagailu bidez eman zizkiguten ikasgai guztiak. Handik itzulita, Getxoko Udaleko arduradunekin egon nintzen arbel ADIk dauzkan abantailei buruz hizketan.

Irakasleentzat eta ikasleentzat tresna eraginkorra, baliagarria eta egokia da, edozein gai, saio, abesti, film, interneten dauden gauza guztiak har ditzakeelako.

Zer den, eta nola erabiltzen den, zer abantaila dituzten Arbel Elektronikoek, hobeto esanda, Arbel Digital Interaktiboak ondo azaldu nahiko nituzke, besteak beste: HABE, HABE Ikasbil, Euskal Jakintza, EGA, IVAP edo Osakidetzako ariketak, azterketak eta saio guztiak, Sareko Euskal Gramatika, EITBren filmak, musika, saioak, baita Euskadi Irratikoak ere, Interneten dauden aplikazioak, hots, ordenagailuaren bitartez ikusi, idatzi edo entzun daitekeen edozer eskura izateko aukera eskaintzen du; eta irakasleek haien karpeta partikularrak ere jar ditzakete (ariketak, gramatika, gai interesgarriak eta abar).

Hortaz gain, arbel horretan bertan atzamarrekin idatzi, marraztu, ezabatu, bat-batean egin daiteke, bai irakasleek, bai ikasleek.

Dudarik gabe, Getxoko euskaltegietarako lagun-garri, beharrezko eta punta-puntako abantaila ederra izango litzateke euskararen irakaskuntzarako. Gainera ikasleek teknologia berriak euskaraz erabiltzeko ohitura hartuko lukete.

Aurrekontu-murrizketa garaian gaudela jakin arren, datorren urterako Getxo Udaleko aurrekontuan sartzea litzateke proposamena. Ez dakit zer modelo eta marka, ezta salneurriak zenbatekoak diren ere, baina informazioa eskatu beharko luketela uste dut. Beraz, nire proposamena hau da: datorren ikasturtean Getxoko euskaltegi guztietan arbel digital interaktibo bana jartzea. Edo, zergatik ez, Uribe Kostako euskaltegi guztietan, Erandio, Leioa, Berango, Sopela, Urduliz, Barrika, baita Gorlizen ere.

Getxoko arduradunak esan zidan udal euskaltegia Erromokoa baino ez zela, eta oraindik eraikin berria eraikitzen ari direla, baina amaitu eta gero gela berrietan instalatzeko asmoa dutela.

Nire ustez, komeniko litzateke Erromoko Euskaltegian aurten bertan (ADI) bat jartzea, bai irakasleek, bai ikasleek datorren urterako ohitura har dezaten.

Getxoko Euskara arduradunak, ADI instalatzeko, hiru edo lau enpresa ezberdini aurrekontuak eskatuz, ziur merkeagoa izango litzatekeela. Prezioa jakin eta gero, euskaltegi bakoitzak bilatu beharko luke diru laguntza nori eskatu.

Nahiz eta aurten (ADI) aurrekonturik ez izan, laguntza hauek emateko, udalak beti dauzka salbuespenak, eta Getxoko Udalarentzat ez litzateke hainbesteko diru laguntza izango. Badakit erraza ez dela izango, baina saiatu gabe ez da ezer ere lortuko.

Tresna hau garestia dela iruditzen zaigu, baina ez hainbesterako, telebista, irrati, grabagailu, disko, kazeta eta abar dena gailu berean eskaintzen dituela kontuan hartuta.

Irakasle batzuei ADIri buruzko abantailei buruz hitz egin nien eta gogoz hartuko luketela esan zidaten, hasiera baten erabiltzeko ohitura hartu behar izan arren.

Onerako edo txarrerako, proposamen hau nire lanbidean hartu nuen ohitura batengatik dator. Urtetik urtera, nire lanbiderako tresnak aurkezten zituzten erakusketa azoketara joaten nintzen, eta lanerako onuragarriak ziren punta-puntako tresneria erosten nuen, banketxeari mailegua eskatu behar izan arren, azken batean epe laburrean etekina ateratzen genuelako eta ohitura hori nire enpresarako ona izan zelako.

Jose Ramon Onandia

(Euskara-ikasle getxoztarra)




ERANDIO, 2014KO IRAILA

Arrain hegalariak / Hegalak zabaldu eta hegan egin, libre. Pertsonok beti begiratu diegu txoriei bekaizkeriaz; oihalezko eta plastikozko hegoak fabrikatu ditugu askatasun egarria asetzeko esperantzagaz. Baina ez genituen behar. Besoak zabaldu eta salto egin besterik ez geneukan, eta hegan egin uretan murgildu arte. Horixe irakatsi digute Billboko La Salve zubitik itsasadarrera salto egin zuten jauzilariek. Irailaren 20an izan zen ikuskizuna Bilbon, baina aurretiko egunetan, Martiartuko kirol klubean entrenatu zuten. Hegaldi luzeagoak egiteko hegorik bagenu! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugul!

Plentziako metro-geltoki ondoko bidegurutzea segurua dela uste duzu?




 Plentzia

Jose Ramon Bilbao

> jubilatua

Arriskutsua iruditzen zait autobusa bertan gelditzen delako, zebrabide baten erdian, bihurgune batean eta marra zuzenari jaramonik egin gabe. Hori guztia txarto eginda dago, eta ekidin daiteke. Autobusa geltoki ondoko kalean sar daiteke, bertan jendea hartzeko eta uzteko edo dena delakoa.



 Gorliz

Jesus Ortega

> jubilatua

Inguru horretan Zabala jatetxea zegoen lehen. Hura bota zuten aparkaleku bat egiteko edota autobusak bertan biratzeko tokia egiteko. Hala ere, itxita dago; auzia omen dago Udalaren eta Aldundiaren artean. Irtenbide bat eman behar zaio bidegurutze horri, oinezkoentzat oso arriskutsua da.



 Sopela

Anjel Sota

> taxista

Bidegurutzea gaizki dago. Batzuek ez dute semaforoa errespetatzen, eta kotxe ugari ez dira ezertaz konturatzen. Penagarria da. Bestalde, autobusak gurutzatzen dira, bertan gelditzen dira eta bidaiariak semaforoa ikusi gabe zeharkatzen dute errepidea.



 Plentzia

Izaskun Legarreta

> etxekoandrea

Segurtasuna penagarria da. Duela asko konpondu behar zuten hori. Ez naiz teknikaria arlo honetan, baina errotanda bat edo horrelako zerbait jarri behar dute, bakoitzak behar duen tokitik gurutzatzeko eta elkar ez oztopatzeko.



 Plentzia

Amaia Arbeloa

> pediatra

Oso txarra. Hemen ondoan eskola bat dago, eta ume piloa pasatu behar da egunero hemetik. Urte asko daraman arazo bat da, eta ez dirudi inora joango denik. Segurtasuna penagarria da, baina ez bakarrik umeentzat, baita kotxeentzat ere.



 Sopela

Iñaki Otegi

> informatikaria

Nire ustez, metodoren bat egon behar da segurtasuna bermatzeko. Egia da oinezkoak askotan ez garela oso zentzudunak, baina hobetu beharra dagoela uste dut. Badakit irtenbideak oso korapilatsuak direla. Esate baterako, lurpeko pasabide bat egitea oso garestia da, baina beti egin daiteke zerbait.




[lehen]



Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO ELIZAKO PLAZA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Ustelak osoa ustel



Algorta, 2014ko iraila

Testua: **Peio Arondo Barandiaran**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Tentazioaren fruta behin leun eta berde zena hain polita, hain lerdena denbora bat pasatuta gelditzen da hondatuta hondar erlojuak hautsi bizi bakarra ez da gutxi argi dago zein den giltza: kontsumi ezazu bizitza eta ez usteltzen utzi.

2

Astiro-astiro hasita erdoiltasuna hedatzen gu ez gara konturatzen mantentzen dugu irrika egin beharrean korrika ta gero gabiltza motel horrela erori zen Babel ta konturatu orduko berandu da eta punto ustelak osoa ustel.

3

Grabitatearen indarrak ikusi sagarren bidez ta Newton bagina legez orain berriro sagarrak beste lege fisiko bat ekartzen digu gogora: Aurrera doa denbora. Seinale ona seguru hori antzematen badugu bizirik gaudelako da.

* Doinua: Dena ez denean ezer

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

emanaldia > Arrakala dokumentala



Urriaren 11n, goizeko 11:00etan da hitzordua

Erandioko Txoko Feministak *Arrakala*, zirrikitu bat baitzean dokumentalaren emanaldia antolatu du urriaren 11rako, zapatua; goizeko 11:00etan ipini dute hitzordua merkatu zaharrean. Bilgune Feministak eta Topatu gazte proiektu komunikatiboak elkarlanean filmatu eta ekoitzi dute lana da. *“Heteroaraua ardatz, galderak proposatzen ditu: Zer da heteroaraua? Nola egituratzen da bizi garen jendartearen?”*

Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan? Hala, Euskal Herria eremu-tzat hartuta, hainbat elkarrizketatuk heteroarauaren inguruko gaiak aztertzen dituzte: familia, identitateak, desira aukerak, sexu/genero sistemak e.a.” Egileek azaldu dutenez, *“Normalizat saldu diguten baitz zurrin horren errailetan ez gara gustura sentitzen, eta galdera horiei nolabaiteko erantzuna bilatu nahian”* prestatu dute lana. ○

ikastaroa > txalaparta jotzen ikasi gura?

Uribe Kostako Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldeak (UKTEST) txalaparta ikastaroa antolatu du. Hil honetan hasiko da ikastaroa, antolatzaileek aurreratu dutenez, arin ibili beraz, eta ahalik eta azkarren harremanetan jarri eura-kaz.

Ikastaroaren iraupen eta gainerako xehetasunei dagokionez, hona: ordubeteko eskolak izango direla adierazi dute, eta, guztira, 10 saio izango direla. Eskolak egu-

enetan izango dira, arrastiko 19:00etatik 20:00etara, Algortan. Ikastaroaren prezioa 50 eurokoa da.

Hala bada, kun, tta-kun, ttu-ku-ttun, takataka doinuakaz dantzaz, jolasean eta musika-sortzen ikasi gura duenak ezin galdu aukera eder hau. Halere, informazio gehiago behar baduzue:

Info+: txalapartauktest@gmail.com
Harremanetarako: 616 696 403



UKTESTek antolatzen du ikastaroa



Urriaren 20tik 25era izango dira ekitaldiak

ekimena > oihuka, iraultzarako astea

UK martxaren ordezkio ekimena abiatu dute: Oihuka, Iraultzarako Astea; urriaren 20tik 25era bitartean. Uribe Kostako Ernaiko kideek azaldu dutenez, *“Gazteok bultzatuko dugun iniziatiba honek gazte mugimendu eta herri mugimenduaren ezagutza eta elkarlana sustatu nahi ditu. Horrez gain, eskualde izaera eta gazte problematika landu nahi ditugu. Horretarako, gure eskualdeari batasuna emango dion*

eta gazteen parte hartzea bermatuko duen iraultzarako borroka espazio aglutinatzailean abian jarriko dugu”. Gazteen parte hartzea, Praktikarako saltoa eta Aisialdia alternatiboan oinarrituko dira; herriz herri egingo dituzte aurkezpenak, eta gero egun bakoitzeko herri batean hitzaldiak, eztabaidak edo lantegiak antolatuko dituzte. Ekitaldi bakoitzeko hitzorduak:

Info+: [facebook.com/oihukauribekosta](https://www.facebook.com/oihukauribekosta)

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaia...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Jon Kareaga Yañez > Boston (AEB)

“*Thank you, coach!*”
esaten didate jokalariek”

Getxon bederatzi urtez entrenatu ostean, Jon Kareaga Yañezegaz harremanetan ipini ziren, zertarako eta Estatu Batuetan futbol-entrenatzaile izateko. 2014ko apirilaren 5ean CD Getxo elkarteko gazteen taldeagaz liga irabazi ostean, mundua zeharkatzea eta Bostonera abiatzea erabaki zuen Kareagak, zazpi hilabeterako kontratu bategaz: hasieran ez zuen sinesten sortutako aukera. Hala ere, Bostonen bere formazioa hobetzeko, eta beste kultura eta hizkuntza batean entrenatzeko aukera eskainita, ezin ezetz esan; ezin zuen esperientzia hura galdu eta abiatu zen.



Zer bisitatu

Boston, Massachussetseko hiriburua da. Entrenatzera joateko, egunero ordu erdi egin behar dut autoan; baina hiriaren ikuspegi ederrarekin errazago egiten dira bidaiak. Hala ere, beste lurralde batzuetan egoteko aukera ere eduki dut: New York eta Miami bereizten ditut guztien artean. Bostonera etorrita, ezin joan gaitezke hemendik Boston Commons parketik bueltatxo bat eman gabe edo Prudential dorrrera igo gabe: hiriaren paisaia osoaz gozatu ahalko dugu. Hortik hamar minutura Harvard Unibertsitatea dago, munduko ospetsuenetako bat: munduko hamaika herrialdetako ikasleak etortzen dira beren formazioa hobetzera.

Harritzeko modukoa

Nire laugarren hilabeteen sari izugarria izan nuen: Estatu Batuetako *play off*-ak irabazi genituen. Bertaraino heltzeko

sekulako lana egin behar izan dugu, baina ez bakarrik zelaian; kanpoan ere bai. Partidak beste estatuetako taldeen kontra jokatzen dira, eta 4 eta 5 orduko bidaiak egin behar izan ditugu autoz. Hala ere, txapeldun bilakatzen zarenean, urrats guztiak onuragarriak dira. Futbol-munduan harritzen nauena ondokoa da: Amerikako Estatu Batuetako futbol-jokalariak (*Soccer*) ez doazela etxera entrenatzaileari eskerrak eman gabe: *Thank you, coach!* esaten didate alde egin baino lehen.

Zer jan... eta edan

Hemen mota askotako janaria jan dezakezu. Izan ere, mundu osoko tabernak daude eta hainbat kulturatako gastronomia dasta dezakezu. Arazoa ordutegia da: bazkaria 12:00etan egiten dute eta afaria 17:00etan edo 18:00etan, asko jota; eta gu ez gaude ohituta. ☺



Nor da

Nongoa
Algortakoa

Adina
26

Zertan dabil
Futbol-entrenatzaile lan egiten du

Ikasketak
Gorputz eta Kirol ekintzetan teknikaria, Magisteritzan diplomatua, futbol-entrenatzailea

Noiz arte
Azarora arte

Non dago

Lurraldea
AEB, Ameriketako Estatu Batuak

Hiria
Boston (Massachusetts), AEBko hiririk zaharrenetakoa (1630)

Kokapena
AEBko ipar-ekialdean

Azalera
232 kilometro koadro

Biztanleria
636.000 inguru (4.924 biztanle kilometro koadroko)

Hizkuntza
Ingelesa.

Dirua
Dolar estatubatuarra (1 dolar = 0,77 euro)



“Aukera badago zineman jarraituko nuke... baina antzerkia alboratu barik!”

Olatz Ganboa > oholtzatik pantaila handira!

Karraderan heldu da Olatz Ganboa UK-gaz jarritako hitzordura. Korrika, lanpetuta, baina alai, baikortasun kutsakorrez. Pozarren. algortarrak bere lehenengo pelikulan parte hartu du, Ana Murugarrenek zuzendutako “*Tres mentiras*” filman: “*Oso gustura ibili naiz! Hori bai, hasiera gogorra izan da, urduri nengoen, ez nuelako zinema-mundua ezagutzen. Zoramen da! Kamerak, fokoak, eszenak moztu, errepikatu, makiladorea sartu...*”. Pelikulak lapurtutako umeen kasuak ditu ardatz. Olatzek ‘*Karmele*’-ren papera egin du, umea lapurtuko dioten amarena: “*Nire pertsonaia oso itxia da, oso barnerakoia, eta adierazpen gehienak begiakaz egin behar izan ditut. Adierazpen hori kontrolatzea izan da zailena*”. Orain arte, algortarra oholtza gainean ibili da batik bat, baina aitortzen duenez... “*Txikitan ileapaintzailea edo pailazoa izan gura nuen!*”. Kazetaritza ikasten zuen bitartean, 19 urtegaz Getxoko Antzerki Eskolan izena eman zuen. Eta geroztik ez da eszenatokitik jaitsi: “*Parte hartu nuen lehenengo antzezlan ‘profesional’ Txorimalo Gaztetxean estreinatu genuen: “Voces pisadas*”. Hainbat ikuskizunetan parte hartu ostean (horietako batzuk Argentinan), orain zineman sartu du burua: “*Nire kasua arraroa da, ez naizelako telebistatik pasa. Aukera badago zineman jarraituko nuke... baina antzerkia alboratu barik*”. ☺ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Antzerkian eta musikan murgildu

Musika-tresnak artean hitzaldi zikloa egingo da oraindik eta azaroaren 14ra, eta **J. M. Bretos Linazak** emongo ditu; **Getxoko Antzerki** Jardunaldiak, **barriz**, urriaren 11tik 19ra izango dira

Proposamen kultural interesgarriakaz abiatu da udagoiena Getxon. Besteren artean, ekimen esanguratsu bi daukazgu begibistan. Batetik, musika-tresnak eta arteari buruzko hitzaldi-zikloa abiatu da: azaroaren erdialdera bitartean hainbat saio egingo dira. Bestetik, laster hasiko dira XXXII. Getxoko Antzerki Jardunaldiak: urriaren 11 eta 19 bitartean izango dira.

Areetako Andres Isasi musika-eskolan egiten ari dira *Musika-tresnak artean* hitzaldi didaktikoen zikloa, Jose Maria Bretos Linaza algortarrak gidatuta: EHUko Zientzia Fisikoetan Doktore, eta Musike-ne Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian akustika musikalaren eta organologiaren irakasle da. Asmoa da “*ikus-entzuleari artelanetan erakutsitako musika-tresnen giltzarriak aurkitzen laguntzea*”.

Zikloa hasita dago, baina oraindino badaude hitzaldi batzuk aurretik: urriaren 17an, *Erdi Aroa eta Errenazimentua*; urriaren 31n, *Barrokotik gaurkotasunera*; eta azaroaren 14an, *Ekialdeko Arteak*. Sartzea doakoa da, baina aurrez esan behar da, musika eskolara deituz: 944 646 011.

Bestalde, urriaren 11tik 19ra bitartean izango dira XXXII. Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Antzezlanak Algortako San Nikolas plazan eta Areetako Andres Isasi musika-eskolan egingo dituzte. Gainera, Algortako kultur etxean antzerki arina ikusteko aukera egongo da.

Baina goazen egunez egun. Urriaren



Potologuak obraren irudi bat; urriaren 11n taularatuko dute Getxon, Antzerki Jardunaldien baitan

11n: San Nikolasen *Carneros* (Organik taldea) eta *Pa.Ti.N* (Helena Golab) lanak ikus ahalko dira, 13:00etan eta doan; Andres Isasin, barriz, *Potologuak* (Txintxeta) 20:00etan (10 euro).

“Algortako kultur etxean antzerki laburrak ikusteko parada izango da Antzerki Jardunaldietan”

Hilaren 12an: San Nikolasen, DJ Porruen umeentzako antzerki eta diskofesta (Kiliklon), 13:00etan eta doan; eta Andres Isasin, Opera abeslaria (Deabru Beltzak), 18:00etan (5 euro). Gainera, Algortako kultur etxean hiru obra antzeztuko dituzte: *Prohibido soñar despierto*, *Autobus a ninguna parte*, *Interior de dormitorio* eta *Una Penelope cualquiera*. Hiru saio

egingo dituzte (18:30, 19:30 eta 20:30). Saio bakoitzerako sarrera 3 eurokoa da, baina lau saiotarako bonoa eros daiteke 9 euroren truke.

Baina hurrengo aste akabuan ere egongo da zer ikusi. Urriaren 18an: San Nikolasen, *Mendizaleak* (Tomaxen abenturak), 13:00etan eta doan; eta Andres Isasin, *Cabaret Chihuahua* (Teatro Mutante), 20:00etan (10 euro).

Hilaren 19an amaituko dira Antzerki Jardunaldiak, ondoko lanakaz: San Nikolasen, *Zoozoom* (Markeliñe) antzeztuko dute, 13:00etan eta doan; Andres Isasin, *Sutondoan* (A-Teatral), 18:00etan (5 euro); eta kultur etxean, *La obsesion*, *Buenas noches madre*, *Dios*, *Lo inclito de tu drama*, *Tres tristes tigras* eta *Azterketa*. ○

Info+: www.getxo.net

Metroaren gainera...

Umeentzako jolastokia egiten ari dira Maidaganen



Urtarrilerako erabilgarri egongo da jolastoki barria

Lanak hasi dituzte Maidaganen, lurperatutako trenbidearen gaineko ingurua urbanizatzeko. Jolastokia egingo dute umeentzat eta obrek 16 aste iraungo dute; aurrekontua 741.503 eurokoa da. Udaletik adierazi dutenez, “*Andra Marin treneko pasaguneak eta trazaketak eragiten zuten hesi fisikoa kentzeko, proiektu berriak auzoko kalitatea hobetuko du*”.

Lehen metroa eta trenbidea igarotzen ziren esparrua urbanizatuz 4.008 metro koadroko azalera duen espazio publikoa sortu nahi dute, “*Getxoko plaza, parke eta aisialdiko beste gune batzuek dituzten antzeko ezaugarriakaz*”. Horretarako, jolastokiak eta egoteko guneak egokituko dituzte (horietako batzuk estalitakoak) eta berdegunea areagotuko dutela jakinarazi du udalak. Aisialdirako gunean ipiniko ei

dituzte: hiri-altzariak (paperontziak, bankuak, aulkia, iturriak, kale-argiak, e.a.), berdeguneak eta lorategiakaz.

Horrez gainera, eremu barria Urduña kaleagaz lotzen duten oinezkoentzako ibilbideak urbanizatzeko lanak ere egingo dituzte, alde batean oinezkoentzako pasealekuagaz. Irisgarritasunari dagokionez, lanak indarrean dagoen araudia betez egingo direla ziurtatu du udalak.

Bestalde, jakinarazi du hasierako proiektuak aldaketak izan dituela, “*herritarren parte-hartzea bermatzeko prozesuaren ostean*”. Getxoztarren “*berrogeita hamar bat iradokizun jaso dira*” eta horietako “*proposamen ugari sartu dira*” azken egitasmoan. Horrela, “*auzokoek proiektuaren definizioa bideratzen laguntzeko aukera*” izan dutela azaldu du udalak. ○

TAO-REN LEHEN 15 MINUTUAK DOAKOAK

Araupeko Aparkamenduaren Zerbitzuaren gunean aparkatzeko lehen 15 minutuak doakoak oraindik aurrera. Denbora hori iraungita aparkatzea luzatu ahaliko da, baina ordainduta. Tarifak bere horretan mantendu dituzte: 30 minutura arte 0,25 euro; ordubete 0,65 euro; ordu bat eta erdi 1,25 euro, eta lau ordu eta erdi 5,85 euro. Gogoratzea auzotarrentzako aparkatzea baimentzeko txartelaren urteko kuota 48,15 eurokoa izango dela.

Info+: www.getxo.net

ZURRUMURRUEN AURKA EKITEN HASI DIRA

Zurrumurruren kontrako estrategiagaz bat egin dute Antzerki Jardunaldiak, Komiki Aretoak eta Euskal Kulturaren Jardunaldiak. Horrela, zurrumurruren kontrako agenteek (herritar boluntarioek), beren inguruetan lan egiteaz gainera, hainbat jardueratan ere parte hartuko dute. Gogoratzea ekimenaren helburua dela “*immigrazioari eta kultur aniztasunari buruz zabaltzen diren estereotipoei, eta topiko negatiboei eta zurrumurru faltsuei aurre egitea*”. Iaz abiatu zuen sentsibilizazio estrategia hori Immigrazio Zerbitzuak.

Info+: www.getxo.net

AREETA ETA NEGURIN BISITA GIDATUAK

Urtero legeaz, Ondareari Buruzko Jardunaldiak egiten ari dira hainbat herritan, Getxo tarteko. Aurten Areetako eta Neguriko “*etxe handi eta dotoreak dira protagonista*” eta doako bisita gidatuen bitartez: urriaren 11n eta 25ean, *Atxekolandeta eta Zugatzarteko Etxe Handi eta Dotoreak* izeneko ibilbidea; hilaren 11n eta 12an, *Ereagako hondartzari begira: San Inazio*; eta 12, 19 eta 26an, *Neguri: urte osoan bizi izateko bizitegi auzoa*. Bisitak doan dira, baina parte hartu gura izanez gero, erreserba egin behar duzu aurrez, non eta Turismo Bulegoan, ondoko telefonora deituz: 944 910 800.

Info+: www.getxo.net

OKINDEGIA

GO

TOA

San Nikolas Enparantza (Andikoetxeko kantoian) ALGORTA

IZOZKI-DENDA

GARAIZAR BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

Oier Garamendi Atxutegi > Ou Mama! musika-taldea

“Talde umoristiko-musikala gara, parte hartzeko aukera emoten diegu ikusentzuleei”



Ou Mama! taldeko musikariak

Musika-talde barria sortu dute aurten Algortan: Ou Mama! dauka izena. Agertokian aritzen dira Oier Garamendi (ahotsa eta gitarra), Aitor Karras (baxua), Iñigo Mentxaka *Mentxi* (kutxa), Javi Alonso (gitarra) eta David Pereiro (koroak, perkusio txikia eta animazioa). Baina ez dituzte ohiko kontzertuak egiten, ikuskizun osoa emoten dute, musika eta umorea elkartuz. Proposamen freskoa da, ikusentzuleak bustitzen ditu, parte hartzeko aukera emoten die eta kontzertuaren parte bihurtzen dira. Horrela, emanaldi bitxietarako aukera sortu zaie algortarrei.

—Orain dela hilabete gitxi emon duzue estraineko kontzertua, ezta?
—Estreinaldi ofiziala Getxo tabernan egi-rekoak ginen, baina horren aurretik San Isidro jaietan jotzeko eskatu ziguten, mai-atzean, eta hura izan zen lehen kontzer-tua: erdi-entsegua edo kontzertu erdi-in-probisatua izan zen. Beranduago jo genu-en Getxo tabernan.
—Noiz hasi zineten?
—Duela urtebete edo hasi ginen entse-guakaz eta apurka-apurka sortu genuen taldea. Uda honetan hainbat kontzertu


emon ditugu, barbarako Algortako Portu Zaharrean.
—Baina zuena ez da ohiko kontzertua?
—Taldea sortzekotan genbiltzanean ideia zen tabernetan jotzea, baina zer edo zer apur bat desberdina egitea. Guk jotzen ditugu abesti ezagunen bertsioak eta horrelako taldeak egon badaude: gauza zen beste zer edo zer eskaintzea.
—Eta zer da beste hori?
—Nik gura nuen egin blues estiloko talde bat, baina jendea erakartzeko ez da oso musika ona; apur bat ezezaguna da horre-

tan aditua ez bazara. Horregatik, jendea erakartzeko zer edo zer topatu gura nuen. Konturatu ginen bertsioak jotzen dituz-ten taldeen artean batek ere ez zuela na-hasten musika eta umorea; eta talde umo-ristiko-musikala sortzea otu zitzaigun. Be-

«Ezkontzetarako deitu digute, ea funeraletarako ere animatzen diren...»

raz, oinarrian musika-taldea gara, baina tontakeriak egiten ditugu jendeari parte hartzeko aukera emonez eta inplikatu-z. —Baina inplikatu, inplikatzen dira iku-sentzuleak?
—Ba bai, ikusi dugunez horixe bera da gehien funtzionatzen duena. Jendeak gus-tuko du eta, batez ere, arlo horregatik hasi zaizkigu deitzen eta jotzeko proposatzen; musika gustuko dutelako, baina baita jai-giroa sortzen dugulako agertokian.
—Eta hori da barritzailea, ezta?
—Bai, nik uste dut baietz. Nik behintzat, ez dut ezagutzen hemen inguruan edo Uribe Kostan hori egiten duen musika-talderik.
—Non jotzeko proposatu dizuete?
—Bada, bitxia izan daiteke, baina lehen-goan ezkontza batean emon genuen kon-tzertua, Berangon. Barakaldon ere pare bat kontzertu egin ditugu azkenaldian; egunean egunean sortzen zaizkigu ema-naldi barriak. Gure asmoa zen tabernetan jotzea, baina apur bat zabaltzen hasi gara. Ezkontzetarako deitzen hasi zitzaizkigu-nez, erdi bromatan esan genuen ezkontze-tan, bataioetan eta hiletetan joko genuela. Ezkontza baterako deitu digute dabordu-ko, ea funeraletarako ere animatzen diren. Hori oso ondo legoke, nahiko barritzailea litzateke; umore apurtxu bat ipintzea mo-mentu latz horietan... ○

Iparra gerturatu, ez galdu
Iparra galdu gabe programa izango da
urri akabuan, hainbat ekitaldigaz



Eneko Bidegain. ARGAZKIA: Euskal Kultur Erakundea

Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emateko antolatzen dute *Iparra galdu ga-be* programa Euskal Kultur Erakundeak eta Getxoko Udalak, eta herriko hainbat elkartek. Urriaren 23an hasita, lau ekital-di antolatu dituzte, guztiak doakoak.

Itxaro Borda idazleagaz abiatuko da programa, hilaren 23an. Uribe Kostako Irakurleen Txokoa hitz egingo du *Boga Boga* eleberriaz; EGIZUk antolatu du so-lasaldia eta Algortako Aldai Patronatua ipini du hitzordua, 19:00etan. Urriaren 28an, barriz, ondoko hitzaldia emongo du Eneko Bidegain idazleak: *Munduko Lehen Gerla Iparraldean samina, Bizkaian*

aberastasuna. Areetako Elkartegian izango da, 19:30ean. Bidegainek *Gerla Handia, muga sakona* liburua idatzi du.

Pare bat egun beranduago izango da *Berbetan eta bertsotan* ekitaldia, ALBEk eta UK-k antolatuta. Odei Barroso eta Xabi Paya mintzatuko dira: Ipar-Hego-aren egoera, hartu-emonak, distantziak, euskararen osasuna, antzekotasunak, erronkak, zubiak... izango dituzte hizpi-de, lehenengo berbetan eta ondoren ber-tsotan. Amaitzeko, Gastro-kontzertua egingo dute The Piper's Irish Puben aza-roaren 4an, 20:00etan. Izan entsa! ○

Info+: www.getxo.net

ALDE HEMENDIK EGUNA,
URRIAREN 11N

Algortan Alde Hemendik Eguna egingo dute urriaren 11n. Goizean topaketak antolatu dituzte eta Altsasun eta Oñatiko Alde Hemendik taldeak gonbidatu dituzte; Aldai Patronatuan egingo dituzte. Herri-bazkaria, kalejira eta kontzertuak ere izango dira, azken horiek Txorimalo gaztetxean. Gainera, egitasmo bi aurkeztuko dituzte: batetik, herriko musika-taldeen abestiakaz osatutako disko bat; bestetik, dossier bat, “herriko gazteek pairatu jazarpen eta kontrol polizialaren lekukotzakaz”.

IZAN BERBALAGUN ETA
MINTZATU! MINTZATU!

Mintzapraktika egin gura duzu, baina ez daukazu euskaraz nogaz berba egin? Berbalagun egitasmoan parte har dezakezu, izan ere, euskaraz berba egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzen dituen programa da. Zertarako? Euskara hobetzen laguntzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko. Laster ekingo dio ikasturte barriari eta izena emon dezakezu urriaren 30era arte, EGIZU taldeagaz harremanetan ipiniz: egizugetxo@gmail.com edo 619 935 541. Baldintza bakarra da euskaraz komunikatzeko gitxieneko maila izatea. Animatu eta biderkatu euskara berbalagunen magiagaz!

Info+: www.egizu.org

AITZOL ALTUNAREN
HITZALDIA ALGORTAN

Lehenengo Karlistadatik Gamazadaraino gaiari buruz jardungo da Aitzol Altuna historialaria hil honetan Algortan. Hitzaldia urriaren 22an izango da, Villamonteko kultur etxean eta 19:00etan. Bolivartiar Ikaskuntza Elkarreko antolatu du, Getxoko Udalak lagunduta, eta elkarre horrek prestatu ohi duen hitzaldi-sortaren barruan kokatzen da. Zehazki, ikasturte barri honetako lehenengo berbaldia izango da.

Info+: www.bolibar.org eta bolibarikastaroa@gmail.com

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jose Ignacio Sarria Landa > musika-eskolako presidentea eta musikaria

“Abesbatzak izan ziren hazia gerora Leioan kontserbatorioa sortu ahal izateko”

Kontserbatorio aurreko Leioako musikaren historia bildu du Jose Ignacio Sarria Landak liburu batean. Musika-eskolari bide emongo zioten abesbatzei buruz dihardu lan horretan; tartean dago berak zuzendu zuen San Juan Bautista korala.

—Zergatik 60-80ko urteetako Leioako musikaren historia bildu? Zergatik liburu baterako beharra?

—2010ean argitalpen bat kaleratu genuen kontserbatorioaren 30. urteurrena zela-eta. Hain zuzen, kontserbatorioaren historia jaso genuen: 30 urteko historia zen, beraz ez zen Leioako musikaren historia osoa; kontserbatorioaren aurretiko historia falta zen. Bigarren liburu honegaz osatu dugu historiaren kontakizuna.

—Hiru abesbatza aipatzen dituzu, ezta?

—Beno, ez dut jaso elizagaz lotutako koruen ibilbidea, parroikia-korua beti egon dira-eta, herri guztietan. Baina horietaz gaindiko historia musikala bildu dut; kontzertuak emoten zituzten abesbatzez ari naiz. Leioako lehen musika-elkartea 60an sortu zen: Ameslariak otxotea. 1968an lekukoa hartu zion San Juan Bautista abesbatzak, eta 1971n, hirugarren koral bat sortu zen: Lamiakoko Beti Lagu-



Liburua doan eskura daiteke kontserbatorioan eta Kultur Leioan

nak. Hiru koruek osatzen dute kontserbatorio aurretiko musika-historia.

—Zelan eragin zuten taldeok Leioako kontserbatorioaren sorreran?

—San Juan Bautista korala zuzentzen nuenen, 70eko urteen akabuan, arrakasta lortu genuen. Gernikako Andra Mari koraleko zuzendaria eta biok deitu gintuzten Bizkaiko Aurrezki Kutxakoek, eta lau hilabetez, kontserbatorioen musika-formazioari buruzko lan bat osatu genuen. Nik

oso garbi neukan kontserbatorioen eskema eta Leioa musikarako sentikor zegoen garai hartan, abesbatza gorenean zegoenean. Horrela sortu zen kontserbatorio bat eratzekeo ideia. Apurka-apurka gauzatu genuen eta, gaur egun, erreferente garelake uste dut.

—Hiru koruak omendu dituzu lanagaz?

—Hori da, abesbatzak izan zirelako hazia gerora kontserbatorio bat sortu ahal izateko; eta hori kontatzea falta zitzaidan. ○

Memoria gal ez dadin...

Gerra zibilari buruzko erakusketa bi Kultur Leioan, urriaren 9tik aurrera



Leioako bonbardaketan hildakoak ere omenduko dituzte

Memoria historikoa ez galtzeko ariketa diren erakusketa bi ipiniko dituzte Kultur Leioan urriaren 9tik aurrera, bata Aranzadi Zientzia elkartearena, bestea Sabino Arana Fundazioarena.

Gerra zibila eta memoria historikoa Leioan izena dauka Aranzadi elkartearen erakusketak, izan ere, Javi Bucesek egingandako ikerlana aurkezteko antolatu dute. Gerra zibileko Leioako bonbardaketa ikertu du, Bucesek berak azaldu duenez, liburu batean bilduz: *Leioa 1936-45: Gerra Zibila eta lehenengo Frankismoa*. 1937an Lamiakon zegoen aerodromo militarra eta Leioa herria bondarbatu zituzten eta 10 lagun hil zituzten. Liburua aurkezteagaz batera, leioaztar haiei

omenaldia egingo diete Kultur Leioan, urriaren 9ko aurkezpen-ekitaldian.

Horregaz batera, bigarren erakusketa bat ere ikusi ahal da leku berean: *Goazen gudari danok... Askatasun bidean (Zirardamendi San Migel-Aiastia, Elgoibar 1936)*. Sabino Arana Fundazioak osatu du eta hainbat herri bisitatuko ditu hilotan. 1936ko irailean eta urrian jazotako bataila gogoratzen du. Gudu ezagun hartan “*eroritako*” 14 hildakoei “*gonazarre*” egin gura diete horrela, eta aipatzea hildako horien artean bazegoela leioaztar bat: Eusebio Gaubeka. Beraz, iragan ez horren zaharra ezagutzeko aukera izango da. ○

Info+: www.sabinoarana.org eta www.aranzadi-zientziak.org

BARIKUETAN JAI! PROGRAMA HASI DA

Barandiaran institutuko jolastokian egingo da Barikuetan jai! umeentzako programa, barikuro, 17:30etik aurrera. Oraindik eta urte akabura arte hamaika ekimenetan parte hartu ahal da: ingurumen eguna, jolas erraldoiak eta koloretsuak, kamisetak apaintzeko tailerra, betiko jolasen zirkuitua eta *iturrien* tailerra, sukaldaritza eta txotxongilo tailerrak, euskal dantzak, zientzia eguna, euskatloia, funky tailerra eta Gabonetako apaingarri originalen tailerra.

Info+: www.leioa.net

HAURRESKOLAN IZENA EMOTEKO GARAIA

Haurreskola publikoetan izena emon daiteke urriaren 10era arte, umeak abenduaren 1ean has daitezten. Leioan bi daude: Artatza (Artatza 81) eta Altzoan (Iparragirre Etorbidea, 76). Adin tarte bi hartzen dituzte: 0-1 urte eta 1-2 urte. Une honetan, Artatza Haurreskolak 3 plaza ditu libre 0-1 urteko gelarako, eta Altzoan Haurreskolak, plaza bat adin tarte bakoitzean. Izena emoteko: 944 048 601 edo artatza.leioa@haurreskolak.net (Artatza), eta 946 072 599 edo altzoan.leioa@haurreskolak.net (Altzoan).

Info+: www.leioa.net

OPERA ABESLARIA KULTUR LEIOAN

Umeentzako ikuskizun ederra prestatu dute Deabru Beltzak taldeak eta Tin Pan Alley-k: *Opera abeslaria*. Urriaren 19an ikus ahal da Kultur Leioan, 18:00etan. “*Opera mundura hurbiltzeko era ludiko eta entretengarria da, handikeriari buruzko hausnarketa. Hori dena musika eta antzerkia lotzen dituen, eta ñabarduraz beteriko errepertorio musikal aberatsa aurkezten duen ikuskizunean*”. Idoia Somoza sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos pianistak “*kontatzen eta kantatzen dute antzerkia, ipuina eta, batez ere, musika den istorioa*”.

Info+: www.kulturleioa.com

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaolabide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Ainhoa Bilbao Astorkiza > abeslaria eta kantu-irakaslea

“Zenbat eta esfortzu gitxiago egin, zenbat eta gehiago ezagutu ahotsa, hobeto kantatzen da”

Lutxanako Tirante plataformak ikastaro-eskaintza kaleratu du. Tartean dago kantu modernoari buruzkoa eta Ainhoa Bilbao Astorkizak emongo du. Gainera, zumba, flamenkoa eta ekialdeko dantza-ikastaroak egingo dituzte, besteren artean.

—Kantu moderno irakatsiko duzu, zerk desberdintzen du bestelako kantutik?

—Kantu moderno esaten diogu kantu lirikotik desberdintzeko, teknikak berberak diren arren. Modernoan estilo danak sartzen dira, lirikoa barne, baina horretan eskolastika erabat zorrotza da. Modernoan gainontzeko estilo danak sartuko genituzke: blues, soul, rock, pop, jazz, e.a.

—Teknika irakatsiko duzu?

—Bai, teknika barik ez dago ondo kantatzerik. Landuko dut arnasa, erresonantziak, ahotsa zelan kokatu... ariketakaz. Errepertorioa ere landuko dugu.

—Zelako jendeak parte hartu ohi du?

—Danetarik. Jende gaztea, koroetan kantatu eta hobetzen datozenak teknikak ikastera, kantatzea gustatzen zaienak, teatroko jendea, e.a. Edonork parte har dezake. Askotan, badago jendea kantatzen dakiena, baina ez daukana ideiarik teknika aldetik; kanta baten aurrean badakitenak bere burua defendatzen, beren erara, bai-



Info+: www.plataformatirante.com

na igual ez dakite zelan egiten duten. Batzuetan gatzagoa da jende horrerik erakustea ez dakienari baino. Beti zaude gauza bordinak egiten era desberdinetan. Orduan, berdin da nondik hasten zaren, beti errepikatzen direlako gauza bordinak, bakarrik abiadura desberdinean.

—Zein izango da helburua?

—Inportanteena da jendea gustura egotea eta disfrutatzea; hori barik ez du balio ezertarako. Kantatzen ondo sentitzeko garrantzitsuenak da libre sentitzea. Eta horre-

tarako kantatzen ikasi behar da: teknika zenbat eta gehiago zureganatu, arinago heltzen zara aipatu egoerara. Kantua deigarria zaionari probatzeko esango nioke. Kantatzeko gogoia badaukazu ikusiko duzue askoz errazagoa dela emoten duena baino. Batzuetan uste da kantariak esfortzu handia egiten dutela kantatzean, baina kontrakoa da, kantatzeko sinplifikatu behar da: zenbat eta esfortzu gitxiago egin, eta zenbat eta gehiago ezagutu zure ahotsa, hobeto kantatuko duzu. ○

Erandio ezagutuz, Ondareari Buruzko Jardunaldi Europarretan: itsasadarretik Erandiogoikora, ibilaldi bi



Izena emoteko: 944 890 140 edo 946 025 891

Altzaga eta Erandiogoikoa. Auzo biak bisitatzeko ibilaldiak egingo dira urrian, Ondareari Buruzko Jardunaldi Europarretan direla-eta. Erandioko Kultur sailak antolatu ditu eta izena emon behar da, lekuak mugatuak dira-eta.

Urriaren 11n izango da lehen urteera: *Altzaga auzoa. Herri langile bat Bilboko itsasadarrean.* Udaletxetik abiatuko da, 11:30ean. Azalduko dute auzoaren jatorria, “*eraikin esanguratsuenaren bitartez, Jauregi baserria, XVII. eta XVIII. mendeen artean nekazaritza-ustiapena izan baitzen*”. Langileen etxebizitzak ere aztertuko dituzte: “*Hiri hori XIX. mendearen ama-*

eran berreraiki zen osorik, industrietako langileei ostatu emateko”.

Bigarren ibilaldia, barriz, *Erandiogoikoa. Nekazaritza elizate izatetik burgesiarren lorategi-hiri izatera*, urriaren 25ean izango da. Andra Mari elizaren ingurua XIX. mendean zelan aldatu zen aztertuko dute, hain zuzen ere, “*Asutik Getxorako errepidea ireki zenean. Nekazaritza-elizatea zena tokiko burgesiarentzako etxebizitza-gune bihurtu zen*”. Kurtzelarreta base-ria, errepide bazterreko jauregitxoak, eta Salustiano Orive eta Ibañez de Betolaza lorategi-hiriak ikusiko dituzte. ○

Info+: www.erandio.net

BELDUR BARIK, PARTE HARTU FLASHMOB-EAN!

Beldur barik genero-indarkeriaren aurkako programaren baitan flashmob bat egingo da Erandion, eta herriko gazteak animatu gura dituzte parte hartzera. Entseguak urriaren 9, 16, 23 eta 30ean izango dira, 20:15ean, Ana Rosa dantza-eskolan (Antonio Trueba, 22). Ekimena doakoa izango da, baina aurrez emon behar da izena, dantza-eskolan bertan.

Info+: berdintasuna@erandioko-udala.net

EXTREMADURAKO ASTE KULTURALA MARTXAN

Astrabuduko Extremadurako Etxeak kultur astea abiatu du, baina oraindino badago zer ikusi. Urriaren 12ra bitartean hainbat ekimen izango dira: hitzaldiak, Urban eta Sin Rumba Fija taldeen kontzertuak, extremadurak eta euskal azoka, herri-askaria, gozoki-dastaketa, “*ohorezko ardoa*” bazkideentzat eta gonbidatuentzat, magoa, kale-animazioa edota erakusketa. Aipatzea urriaren 11n Extremadura-Euskadi kultur truke ekitaldia egingo dela: Trabudu taldearen, eta Astrabuduko eta Gasteizko Extremadurako Etxeetako dantza-taldeen emanaldia izango da.

Info+: www.erandio.net

DANTZA-IKASTAROAK ERANDION, EUSKARAZ

Iraila amaitzean dago, baina oraindino izena emotea dago hainbat dantza-ikastarotan. Batetik, Gautxori kultur elkarteak antolatuta, euskal dantza-ikastaroa emongo du Haizea Hormaetxeak. Klaseak Altzagako azoka zaharrean izango dira eta talde bi egingo dituzte. Izena emoteko, deitu 679 353 690 telefonora. Bestetik, Auzokoa Herriko elkarteak dantza moderno-ikastaroa egingo du, euskaraz. Asmoa da Euskararen Egunean jendaurrean dantzatzea, abenduaren 3an. Entseguak Erandiogoikoa Gizarte Etxean izango dira, doan, eta izena emon daiteke urriaren 17ra arte: 634 443 193.

Info+: www.erandio.net



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com • 943 37 15 45

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

atik hasita
BEZ baima



IRLANDAR SOINUAK
URRIAREN 10EAN

Seán Keane musikari irlandarra Sopelara etorriko da urriaren 10ean eta kontzertua emongo du Kurtzio kultur etxean, 20:30ean. Irlandako kantaririk ezagunenetakoa da Keane eta, gainera, folk munduko ahotsik balotsuenetakoa. Tradizioa eta gaurko kanta irlandarrak landu eta uztartzen ditu kantautoreak. Beraz, Irlandako folk-doinuak ezagutu gura badituzu, aukera ederra daukazu hil honetan. Sarrera bakoitzak 5 euro balio du, daborduko salgai daude.

Info+: www.sopelaudala.org

ITZARTUREN IKASTARO-
ESKAITZA PREST

Itzartu emakumeen elkarteak aurtengo ikastaro-eskaintza plazaratu du. Esatea gazteentzako sukaldaritza-tailerra eskainiko dutela, ohiko ikastaroez gainera: aerobic, yoga, gimnasia integrala, margolaritza, eskulanak, aqua-fitness, antzerkia, pilates, patchwork, autodefentsa feminista, e.a. Ezin aipatu barik utzi *Zure armairuan dago, birziklatu* izeneko ikastaroa, belar osasuntsuen tailerra, garapen pertsonalerako osasun eta psikologia tailerra edota *Emakumeak, kultura eta gaurkotasuna* ikastaroa. Izena emoteko Itzartugaz harremanetan ipini besterik ez duzu.

Info+: itzartu@hotmail.com

PLENTZIAKO IKASLEEN
ARGAZKI-ERAKUSKETA

Erakusketa bitxia prestatu dute Plentziako institutuko ikasleek, eta Kurtzio kultur etxean ikus daiteke urriaren 19ra arte. Ikasleek gaur egungo eta antzinako argazkiakaz muntaia egin dute: irudi biak agertzen dira argazki bakarrean, eta badaukate loturarik euren artean; “*horrela, oso argi antzematen dira egon diren aldaketak*”. Testuek laguntzen dituzte argazkiak, aldaketok azaltzeko. Ikasleek 80 argazki egin zituzten, baina horietako 15 erakutsiko dituzte orain.

Autokarabanagaz Urkon
Datorren udan prest egongo da Urkon
autokarabanentzako gune bat



Urko ingurua, Larrabasterran

Furgoneta-erabiltzaileak zorioneko daude; izan ere, autokarabanentzako gune bat izango da Urkon datorren udatik aurrera. Aparkalekuak 24 autorentzako lekua izango du, beharrezko zerbitzua-kaz: zabor-edukiontziak, argiztapena, iturria eta gune garbia.

Horrela, udalak turismo mota horrentzako alternatiba eskaini gura du, “*gaur egun, inguruan ez dago-eta horrelako turismorako*” eskaintzarik. Gainera, Sopelan turismoa sustatu gura du eta “*gaur egun hondartza inguruetan sortzen diren arazoak ekidin*”. Aparkalekua

behar moduan seinaleztatuko dute, autokarabanak bertaraino iritsi ahal izateko.

Era berean, Urkoko padura berreskuratzen jarraitu gura du udalak. Aurten hainbat ekimen garatu dituzte ildo horretan: bertako zuhaitzak landatu dituzte eta putzu bi egin dituzte bertako animalia-espezieak berreskuratzen hasteko. Hain zuzen ere, autokarabanentzako aparkalekua gune horretan integratu gura du, arboladiak sortuz. Maiatz eta urri bitartean erabili ahalko da eta, gainontzeko hilabeteetan, kiroldegiko erabiltzaileek erabili ahalko dute. ○

Sonia Huidobro Ruiz > Berdintasun zinegotzia

“Emakumeak ez gara perfektuak eta ez dugu izan behar; jabetzeko beharra dago”



Info+: www.sopelaudala.org

Emakumeentzako Jabekuntza Eskola abiatuko da Sopelan. Sonia Huidobro Ruiz Emakumea eta Berdintasuna saileko zinegotziagaz berba egin dugu.

—Eskola sortuko da, zergatik?
—Badira urte batzuk neska gazte talde feminista antzeko bat dagoela herrian eta Eurakaz egin dugu emakume gazteen beharren diagnostikoa eta, uste genuen moduan, ondorioztatu da Jabekuntza Eskolaren beharra dagoela: ez da atzoko gauza, behar hori aspaldi ikusi genuen eta Eskolaren ideia ere aspaldikoa da; Mankomunitateko berdintasun teknika-riaren urtetako lanaren eta esperientzia- ren ondorio ere izan da, berak ikusi du beharra bazegoela. Emakume gazteekin ideia hauek partekatu eta adostu dira, eta interes handia zeukaten. Eskolak ahalbi- detuko du taldea sendotzea; udalak horretarako aukera emon gura die.
—Zeintzuk helburu dauzka Eskolak?
—Emakumeentzako ikaskuntza eta

kontzientziazio prozesua da, ezartzen di- guten diskriminazioa salatzeko; borroka- tzeko ahalmena emango diguna. Gainera, esperientziak partekatzeko eta gozatzeko lekua izango da. Gai oso interesgarriak landuko dira, besteak beste: gorputza bu- ruarekin konektatzen, komunikazioa, fe- minismoaren historia eta feminismoa In- terneten. Formazioa egingo du *Mujeres imperfectas* taldeak. Nik neuk bat egiten dut euren filosofiarekin: emakumeak ez gara perfektuak eta ez dugu izan behar.

«Jabekuntza Eskolan gai oso interesgarriak landuko dira; animatu!»

Gizarte ereduaren kontra egiteak esan na- hi du, emakumeari exijitzen baitzaio gi- zonei exijitzen ez zaiena. Emakume guzti- ak animatzen ditut parte hartzera, izan ere, datuek diote gazteen artean ez dago- ela berdintasunik; biolentzia sinboliko izugarria jasaten du emakumeak. Horrek erakusten du Eskolaren beharra. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DANTZA GARAIDIEKO IKASTARO BI, URRIAN

Ana Rosa Terceroren dantza eskolak dantza garaikideko ikastaro bi eskainiko ditu urrian, Nerea Martinezen eskumenez. Lehenengoa barikuetan izango da, 11:15etik 13:15era. Bigarrenak, berriz, arratsaldeko ordutegia izango du, martitzen eta eguenetan: 20:00etatik 21:30era.

Harremanetarako: 944 170 140

BERANGO ANTZOKIA EKIMENEZ LEPO

Berangoko antzokiak kultura eskaintza handia antolatu du urrirako. Hilaren 5ean, *Ernest ta Celestine* pelikula proiektututako dute 18:00etan. Bestalde, urriaren 11n, Ensayos Flamencos de Candela eskolak dantza erakustaldia eskainiko du 20:00etan, dohainik. Urriaren 18an, berriz, udal dantza eskolak eta Ana Rosa Terceroren dantza-eskolak ere erakustaldia egingo dute, 19:00etan. Hilaren 25ean, Astrabuduko eta Berangoko Nagusien Elkarreketako abesbatzek kontzertua emango dute, 18:00etan; eta, azkenik, hilaren 26an, etxeko txikienek Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorregaz gozatuko dute, 18:00etan, hiru euroren truke.

DEFIBRILADOREAK JARRI DITUZTE KIROLGUNEETAN

Udalak desfibriladoreak jarri ditu herriko hiru kirolgunetan: kirolgunean, frontoian eta futbol zelaian. Horiek behar bezala erabiltzen ikasteko, aditu batek ikastaroak eta hitzaldiak emango ditu.

uk

zure
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Oinezkoentzako **bulebarra**
Parte hartze prozesua zabalduko dute
Sabino Arana kalea **berrantolatze**ko



Aurreproiektuaren arabera, oinezkoentzako zonaldea handituko litzateke

Berangoko Udalak Sabino Arana kalea berrantolatzeko herritarren parte hartzea bultzatu gura du. Inguru horretan jarritako karpa baten bitartez, hirigune horretako berrantolaketa aurreproiektuaren informazioa ematen hasi dira. Hala, “auzokideek horren inguruko iritzia eta proposamenak eman ahal izango dituzte”, jakinarazi dute udal agintariak.

Aurreproiektu horren arabera, oinezkoek ibiltoki zabalagoak izango lituzke, tokiko trafikoa motelduko litzateke, zuhaitzez hornitutako lorategiak ezarriko lirateke eta umeentzako estalitako

parke bat hartuko luke. Horregaz batera, Getxoko bidegorri sareagaz lotuko lukeen bidegorria egingo lukete, Sabino Arana kale osoa zeharkatuko lukeena. Horregaz guztiagaz batera, agintarien arabera, egun dagoen aparkaleku kopurua areagotu eta tokiko merkataritza indartuko litzateke.

Oraingoz, publikoari zabalik dagoen proposamena baino ez dela gogorarazi dute arduradunek. Hala, aurreproiektua aurrera ateratzeko, auzokideen oniritzia behar dutela jakinarazi dute. ○

Info+: www.berango.net

AIXERROTA BHI
• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

I. Elortegi, O. Soto eta N. Gaya > Ekogune

“Ortuariak landatzeko nondik norakoak jaso ditugu fitxetan”



Info+: uribekosta.org/eu

Uribe Kostako Mankomunitateko Ekogune sailak, nekazaritza ekologikoaren inguruko ikastaroetako parte-hartzaileen eskaerei jarraituz, oinarritzko ortuarien gaineko hainbat fitxa argitaratu ditu, La Caixagaz elkarlanean. Horiek webgunean kontsulta edo inprima daitezke. Hala ere, ikasturte honetan zozketan bidez banatuko dituzte batzuk, ikastaroetan parte hartzen dutenen artean.

—Ekogunetik ortuarien fitxen bilduma bat sortzen ari zabilzate...

—Bai, 2006. urtetik ari gara hainbat ikastaro egiten, bereziki nekazaritza ekologikoaren ingurukoak. Orduan, iaz jasagarritasun sailko zinegotziak komentatu zuen ideia polita izan zitekeela horrelako fitxa bilduma bat ateratzea. Hala, ideia horregaz, La Caixa banketxera joan eta diru apur bat jaso genuen proiektu hau aurrera ateratzeko.

—Fitxa horiek nori zuzenduta daude?
—Ikastaroak egiten dituzten pertsonen edo nekazaritzaren inguruan interesa

duen orori. Fitxak webgunean daude eskegita, beraz, edonork deskarga ditzake. Gure ikastaroetan parte hartzen dutenen artean ere banatuko ditugu, baina edozeinek webguneetik hartu ahal ditu.
—Zer aurki daiteke horietan?
—Barazkien inguruko fitxak dira, hala nola, azenarioa, tomatea eta piperra. Momentu honetan zazpi fitxa bakarrik

«Zazpi fitxa atera ditugu, baina gehiago aterako ditugu»

egin ditugu, oinarritzko ortuarienak. Horietan, barazkiaren inguruko historia laburra, horiek nola lantzen diren, egutegia eta nola jasotzen diren azaldu dugu, besteak beste.

—Gehiago egitea aurreikusten duzue?
—Bai, beste hainbat ateratzeko asmoa dugu. Horregatik atera ditugu fitxa moduan, bilduma osatzeko. Momentu honetan oinarritzko barazkiak bildu ditugu, baina aurrerago bestelakoak izango ditugu.○

OSTAIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Uribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osagarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

KULTUR ESKAINTZA
ANITZA BARRIKAN

Barrikako Udalak hainbat ekimen antolatu ditu udagoienarako. Urriaren 10ean, barikua, *Rio II* filma proiektatuko dute Ander Deuna kultur aretoan, 18:00etan. Astebete beranduago, hilaren 17an, 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutilen artean irakurketa suspertzeko tailerra egingo dute liburutegian, 18:00etan. Azkenik, urriaren 24an, barikua, *Spirit* filmagaz gozatzeko aukera egongo da Ander Deuna kultur aretoan, 18:00etan.

LAN DUINA ESKATU DUTE
ESKUALDEKO LANGABEEK

Uribe Kostako 100 langabetuk baino gehiagok, Bizkaiko lan hitzarmena eta lan duina eskatu zuten irailaren 25ean Urdulizen. Viuda de Sainz SA enpresak tokiko ospitaleko lanen esleipena du, besteak beste, eta horiek aurrera eramateko, “*kanpotarrak eta lan-baldintza penagarrietan*” kontratatu dituztela salatu dute langabeek. Lan horietarako “bertoko beharginak kontratatu ez izanaz” kexu dira, eta dagoeneko Urdulizko metroa lurperatzeko lanei begira daude langabeak.

NAFARROA OINEZERA
JOATEKO AUTOBUSAK

Hilaren 19an Zangotzan ospatuko den Nafarroa Oinezera autobusez joateko aukera dago Sopelan, Gorlizen eta Plentzian. Horretarako, gura duenak izena eman dezake urriaren 6tik 14ra arte; Makomunitatean informazio gehiago.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Urduliz

Neska-mutil gaztetxoen topalekua
izan gura du **Gazteleku berriak**



Eraikin berriak hainbat gune ditu neska-mutilen gozamenerako

la urtebeteko lanen ostean, martxan da Urdulizko Gaztelekua, 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei begirakoa. Irailaren 20an zabaldu zuten, inaugurazio-jaialdi bategaz. Tokiko udalak 514.000 euro jarri zituen eskola zaharra birmoldatzeko eta egokitzeko.

Eleizalde kalean dagoen eraikin berriak hiru solairu ditu; lehenengoa, jolasei zuzenduta, sarrera librekoa; eta beste biak ekintza kulturei eta tailerrei zuzendutakoak. Hala, lokal berriak lau gune handi ditu: bat, teknologiaz erlazionatutako gauzetarako (PS4 eta Wii bideo-kontsolak, ordenagailuak, telebista e.a.); beste bat, mahai-jokoetarako eta irakurketarako (liburuak, kartak, damak, monopolia e.a.); beste bat, taldekako jokoak egiteko (ping-ponga, billarra, futbolina e.a.); azkenik, erabilera askotarako gune bat dago, eta, bertan, jarduera bereziak egin ahal izango dira: tailerrak, zinema-emanaldiak, dantza eta abar. Gainera,

Gaztelekuak eskalatzeko murrua ere badu aurreko fatxadan. Horrez gainera, arduradunek jakinarazi dutenez, “*Gaztelekuak bilgune bat baino gehiago izatea gura du; esperientziak gainontzekoakaz batera bizitzeko eta norbere proiektuak egin ahal izateko lekua izatea*”. Hala, hilero

«Hilero hainbat jarduera egingo dituzte, hala nola, mintegiak, irteerak eta ikastaroak»

hainbat jarduera egingo dituzte bertan, hala nola, mintegiak, irteerak, ikastaroak eta lehiaketak. Horregaz batera, gazteek ere egin gura izango lituzketen jarduerak proposatzeko aukera izango dute.

Lehen, eraikin hori eskolatzat erabiltzen zen, eta, azken urteotan, udalak antolatutako tailer ugari egin izan dira bertan. Hala ere, eraikina goitik behera zaharbarritu, eta udalerriko gazteentzako topagune barri bihurtu dute. o

Urr. 6 - Urr. 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Bibrazioak (marrazki eta grabatuak.** Urriaren 15era arte. Algortako kultur etxean. Doan.
► **Prebentzioaren balioa emakumezkoen mutilazio genitalaren aurka.** Urriaren 15era arte. Algortako kultur etxean. Doan.
► **Paisaia/ Red: Getxo.** Urriaren 31ra arte. Algortako Torrene aretoan.

LEIOA

► **Gerra zibila eta memoria historikoa** Leioan. Urriaren 9tik 30era. Kultur Leioan. Doan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Carneros (Organik) eta Pa.Ti.N. (Helena Golab).** Urriak 11, 13:00etan. Algortako San Nikolas plazan. Doan.
► **Podologuak (Txintxeta).** Urriak 11, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.
► **DJ Porru (umeentzako antzerki-diskofesta).** Urriak 12, 13:00etan. San Nikolas plazan. Doan.
► **Opera abeslaria (Deabru Beltzak).** Urriak 12, 18:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.

BERANGO

► **Flamenko-erakustaldia.** Urriak 11, 20:00etan. Berango antzokian.
► **Dantza-erakustaldia.** Urriak 18, 19:00etan. Berango antzokian. Doan.

LEIOA

► **Feelgood (Alistair Beaton-ena. Teatro Español, Off produkzioak eta enTRAMAdos).** Urriak 11, 20:30ean. Kultur Leioan. 15 euro.
► **Opera abeslaria.** Urriak 19, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza aktoreak

► **Antzerkia**
Pankreas antzezlana, Erandion eta doan

Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza aktoreak oholta gainean. *Pankreas* dauka izena antezlanak (Tartean Teatroa) eta urriaren 16an ikusi ahalko da azoka zaharrean: “*Hiru lagun. Lehenak, pankreas-transplante baten premia larria dauka. Bigarrenak, suizidatzeko asmoa dauka herentziazko Alzheimerrari izkin egiteko. Hirugarrenak, barriz, proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa emateko. Une hartatik aurrera, ezustekoak bata bestearen ondoren etorriko dira, fisika modernoaren axioma bati men eginez: gerta daitekeen guztia, denik eta sinesgaitzena bada ere, gertatu egiten da noizbait*”.

• **Non:** Altzagako azoka zaharrean • **Noiz:** Urriaren 16an, 20:00etan.

ERANDIO

► **Bakarrizketak.** Urriak 18, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

► **Espaloian.** Urriak 17, 20:30ean. Kurtzio kultur etxean. 5 euro.

LEIOA

► **Andy J. Forest eta Travellin’ Brothers.** Urriak 17, 22:00etan. Kultur Leioako Ambigun. 10 euro.

MUSIKA

SOPELA

► **Seán Keane (Irlandako folka).** Urriak 10, 20:30ean. Kurtzio kultur etxean. 5 euro.

ERANDIO

► **Txistu-kalejira.** Urriak 19, 12:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazatik Mendiguren plazara, auzo osoan.

ZINEMA

BARRIKA

► **Rio II.** Urriak 10, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.
► **Spirit.** Urriak 24, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

BERANGO

► **El oso Yogui.** Urriak 12, 18:00etan. Berango antzokian. Doan.

ERANDIO

► **Como entrenar a tu dragon II.** Urriak 19, 17:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.
► **Dallas Buyer club.** Urriak 19, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

BESTEAK

ERANDIO

► **Ondareari buruzko jardunaldiak: ibilaldia Altzaga auzotik.** Urriak 11, 11:30ean. Irailaren 23a plazatik.

GETXO

► **Olerkizaleen klubaren saioa.** Urriak 15, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.
► **Literatur solasaldia: Boga-boga (Itxaro Borda).** Urriak 23, 19:00etan. Algortako Aldai patronatuan.

GORLIZ

► **Ondareari buruzko jardunaldiak: bisita gidatuak.** Urriak 7 eta 9, 16:30ean. Sertutxenatik. Informazioa turismo-bulegoan.
► **Osasun-eskola.** Urriak 15, 22 eta 29, 11:00etan. Sertutxenan. Izena emon osasun-etxean.

SOPELA

► **Literatur-solasaldia: Erraiak (Danele Sarriugarte).** Urriak 16, 19:00etan. Kurtzion.


[albuma]



Esaera zaharrak...

...eta txiste barriak, zioen liburu batek. Plentzian, barriz, esaera zaharrak parte-hartzaileek asmatu beharrekoak izan ziren eta txisteak bertsoek ordezkatu zituzten, noiz eta irailaren 27an. Izan ere, esaera zaharren txapelketa egin zuten, daborduko bosgarren edizioa. Taldeak eta bertsolariak prestu, eguraldi ederra, egun zoragarria igarotzeko osagai danak zeuzkaten, baita baliatu ere. Aupa, zuek!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Estropadak

Gorlizen, 1936an

Itsaso zabalera begira danak,
ziaboga arinen zeinek egin zelatan,
itzulbidea azkarren zein traineruk
bete itxoiten... Astondoko
kaitxoko murruan batzuk zutunik,
jesarrita besteak, bateletan edo
txalupetan uretan gainontzekoak...
Estropadan parte hartu zuten
traineruak zeintzuk izan ziren ez
dakigu, ezta estropada egiteko
zeinek behar izan zuen denbora
gitxien ere... Otera, jarraitzaile,
zale eta ikusle andana lehorrean
zain izanda, zalanza barik, giro
ederraz gozatuko zuten
arraunlariek Gorlizen dema
amaitzean.

PLASENTIA BUTROE MUSEOA

[berbetan]

Majed Mohammed Abdelkader Dibsi Bulbul Jeriko-ko errefuxiatu kanpamentuetan jaio zen 1952an. Politologo, jurista eta kazetari palestinarra da. Aman, Jordania eta Espainian burutu zituen ikasketak. Al Hadaf astekari libano-palestinarreko korrespondentsala da, eta Radio Exterior de España (RTVE) lan egiten du, Madrilén. Espainia eta Portugaleko Palestinar kazetari eta idazleen elkarteko presidente ohia, eta Espainiako hispano-palestinarren elkarteko presidente ere izandakoa da. Jesus Valenciaren (Zirauki, Nafarroa, 1943) *Boicot a Israel. La solidarida que demanda Palestina* (Txalaparta, 2014) liburuaren hitzaurrea idatzi du.

Majed Dibsi

Palestinari begira

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Jesus Valenciaren *Boicot a Israel. La solidaridad que demanda Palestina* (Txalaparta, 2014) lanaren hitzaurrea egin duzu, eta Bilboko aurkezpenean izan zara oraintsu. Zein ekarpen egiten du liburuak?

—Esan daiteke, palestinar prozesuaren urte luzeko hurbiltze eta gertuko behatze ibilaldi baten emaitza dela liburua. Israelgo Estatuak hastapenetatik palestinar herriari eragindako gehiegikeriei eta ankerkeriei erantzuna edo emaitza da boikota. Eta Israelgo Estatuak ematen duen irudiaz mundu mailako iritzi publikoak eta gizarte zibilak daukan kontzientzia, gero eta handiagoa, islatzen du hein batean; apartheid estatua dela, garai batean Hegoafrikan izandakoaren berdina, baina kasu honetan, larriagotu dena denboran luzatu delako, eta darabiltzan metodoengatik: muga guztiak gainditu dituzten metodoak. Ondo baino hobeto frogatu dira palestinar gizarte zibilaren aurka Israelgo Estatuak erabiltzen dituen metodo faxista eta neonaziak: okupazio-indarra, Gaza, Zisjordania edo beste hainbat hiritako palestinarren aurkako kanpaina, harresia

altxatzea, palestinarren etxebizitzak usurpatzea, lurrak konfiskatzea, herri palestinarra haien okupazio-kartzelan preso bihurtzea eta abar; hori da Israelgo Estatuak, kanpora saltzen duen “iruditik” urrun eta alderantziz; Israel dela Ekialde Hurbileko beste nazio-estatu bat hasieratik eta kontu horietatik urrun. Hori dena nazioarteen begi eta belarrietara heltzen da elkartasun brigaden bidez, eurek estalgabetzen dute hori guztia, lekuan bertan egonda aurkitu edo konturatzen direlako Israelgo Estatuak antzeztu duen gezurraz. Aipatu-

“Hori ezagutzen da elkartasun brigaden bidez; bertan egonda konturatzen dira Israelek antzeztutako gezurraz”

tako eskualdean interes kolonialen, zein ez kolonialen, basea baino ez da Israel. —Oraindino egongo balitz egoera hau ezagutzen ez duen norbait, eta zelan edo halan elkarrizketa hau irakurriko balu, zelan azaldu zenioke Palestinaren egoera? Palestinarrek bizi dutena ulertzeko arrazoiak edo aitzakiak...

—Hainbat kontu desmitifikatu behar dira. Palestinaren auzian, hastapenetatik hasiz, Palestinari zegokion lur-eremua zabalagoa zen, gaur egun Israelen mende dagoen palestinar lur-zatia baino are zabalagoa, Siria ingururainoko lur azalera; hori modu naturalean eta historikoki Palestinari dagokio. Baina, aspaldiko sasoi-an, zatitu egin zuten hainbat nazio-estatan, Sykes-Picot (1916) hitzarmenaren bidez; eta gerora, Israelgo estatua sortzeko. Israelgo Estatuak XX. mendean sortu zuten proiektu kolonial bat da, horren

hastapenak XIX. mendean hasieran ezarri bazituzten ere. Garai hartan susperraldi-an zeuden indar kolonial anglo-frantziarren interesen aldeko estatua zen, eta haien helburu nagusia, horren bitartez, Ekialde Hurbileko eta Ekialde Ertaineko eremu zabala kontrolpean izatea zen; bide batez, euren interesak Asiako hegoal-



deagaz lotzen dituen ibilbidea kontrolatuz. Horregatik, aurretiko jomugak zituen proiektua izan zen Israelen sorrera. Eta hori bideragarria izan zedin hainbat kontu faltsutu behar izan zituzten. Hala, lehenengo immigrazioak heldu ziren Palestinara, britaniarren eta nazioarteko agentzia juduaren babespean. Bitartean aprobetxatu zuten aitzakia-mezua hedatzeko: holo-kaustoarena, juduekiko erasoaren izenean... Halakoak Errusiako, eta beste herrialde batzuetako, milaka edo milioika pertsonak ere jasan zituzten, baina Israelen gaia bakarrik gogorarazten dute. Eta horretan oinarritu dute historia faltsua: lurralderik gabeko herria zela, lurrik gabeko herri alderraia. Eta hara! Bazela, orduan, herriarik gabeko lurralde bat, desertua zena, eta eurek baratze bihurtu zutena. Horiek guztiak iruzur eta gezurkeriak dira, eta horiekin ziria sartu zioten munduari, batez ere hedabideen kontrolaz eta baliatuz. Ostera, denbora lagun, kontatutako guztia estalgabetu eta ez zela egia jakin da: lurralde horretan bazela Palestinako herria, lur honen ugazaba zena, eta palestinar herria herri aberatsa eta oparoa zela, nekazaria eta ekoizlea; beraz, Palestina ez zen desertua, zitrikoak, barazki edo ortuariak, olibondoak eta beste ekoizten zituen-eta, gainera Europara esportatzen zituen XIX. mendeko azken herenean, baita XX. mendean ere, baita Espainiara ere. Lur horiek bere egin zituzten, horietan eraiki dute, “hautatua izan den herria” zela aitzakiarekin, eurei “promestutako lurra” zela; horiek mitologia erlijioso batean oinarri zituzten, errealitatearekin zerikusirik ez duena. —Oinarritzko gakoak horiek. Zelakoa da palestinarren egunerokotasuna? Eraso militarrek, bonbak ez daudenean ere. —Egunerokotasuna bizirautean datza; Israel okupazio-indar legez sartzen delako, eta horrek eragiten dituen ondorio guztiekin. 1967tik milioi bat gora palestinar pasa dira Israelgo kartzeletatik, oraindino 6.000 palestinar dituzte han. Egunero daude atxilotetak, egunero, eta inor ez

dago salbu: ez umeak, ez emakumezkoak, ez adinekoak, ez herri palestinarren ordezkariak e.a. Denek jasaten dute euren etxeetan sartzearen urraketa, zirkulazio eta ibiltze-urraketa, euren lurretik irten behar izatea, harresia eraikitzearen ondorioak, 721 km luzekoa eta Hagako Auzitegiak zigortua (hitz egiten dugun bitartean erakitzen jarraitzen badaute ere). Palestina-

“Egunerokotasuna bizirautean datza; egunero atxilotetak, etxe-bortxatzeak, ibiltze-urraketa, harresia...”

rrek daroaten beste zama bat da, palestinarrek kontzentrazio-esparru batean bizitzera behartzen dituzte. Eta halakoa da euren egunerokotasuna. Palestinarren etxeetan indarrez sar daitezke israeldar soldaduak goizeko ordu txikietan, edonoiz; euren etxeak “liberatu” ditzakete, tresna guztiak eroan eta eraitsi. Halakoen aurrean nazioarteak inolako erantzunik eman gabe. Pentsa: atzo bertan etxe batera sartu hotz-hotzean mutiko bi hil zituzten Hebronen, horretarako israeldar batzuen ustezko bahitzaileak izan zirelako aitzakiarekin bakarrik, kontuan hartu lehenago beste gazte bat akatu zutela erreakzio edo erantzun bezala eta hala. Hau da, hiru kolono israeldarren ustezko bahiketa zela eta, azkenean 8-9 lagun hil dituzte! Gainera, Gazari eraso, ezaguna dugun emaitza izan due-

“Neurtu beharreko amorrua edo ernegua sentitzen duzu... Hala ere, Israeliek porrot egin duela ikustean...”

na: 2.160 hildako eta 11.000 zauritu, 45.000 etxebizitza suntsituta, eskolak, meskitak, azpiegitura guztiak eta abar. —Zelan egiten diozu aurre, zelan jasan daiteke, ezin ezer egitea, inpotentzia? Palestinan gertatzen ari den guztiaren berri jasotzen duzunean Madriletik, esaterako. —Neurtu beharreko amorrua eta ernegua

sentitzen dituzu. Begibistan ikusi arren euren botere eta ahalmen militar izugarria, AEBen eta NATOkoeure aldekoen laguntzarekin lotutakoa, hala ere, Israeliek porrot egin duela sentitzen duzu; hala eta guztiz ere porrot egin duela euren oinarritzko helburuan, herri palestinarra menderatzeko eta azpiratzeko nahian, palestinarrek otzantzeko eta bere egiteko asmo-

an; herri palestinarrek bere aldarrikapenak eta erresistentziarako eskubidea albora ditzan Israeliek zuen xedea ez duelako lortu. Are gehiago, mundu mailan palestinar auziarekiko kontzientzia handiagoa dago eta herri palestinarrekiko elkartasuna handiagoa da; horrekin batera, Israelgo Estatuarekiko gaitzespena ere gero eta zabalagoa da. Eta horrek guztiak, zelanbaiteteko arnasbidea eskaintzen dizu. Ostera, noski, neke sentsazioa ere baduzu; batzuetan ez duzu sinesten balizko justizia unitbertsal horretan, gauzak neurri berarekin juzgatzen ez dituztelako. Alabaina, baikortasunez jardun behar dugula uste dut; nazioartean aldaketa ematen ari dela uste dut, geostrategikoki begiraturaz, eta Israelen babesle eta jagoleen porrota gero eta nabarmenagoa dela. Tinko jarraitzeko,

borrokan, bultzada ematen dizu. —Euskal Herrian, beste hainbat lekutan legez, Palestinarekiko elkartasunez hainbat salaketa ekitaldi antolatzen dira; larregitan ahozapora mingotsa lotzen da, nahikoa ez delakoan, palestinarrei helduko ete zaien pentsatuz... —Bai noski, ez da etsi behar! Gertaerei eta

egoerari baikortasunez begiratzen ahalegindu behar dugu; baina nekaezin, irmo, iraunkor jardun. Eurek bilatzen dutena zera da: beste egitekorik ez dagoela sinestartaztea, zuk hori sinetsi eta onar dezazun, horrez gainera patua eurak baino ez direla sinetsarazi gura dizute, garaiezinak eta menderaezinak direla, denbora eurentzat ez doala. Eta ez da egia! Euren porrota

“Baikorrak izan behar dugu, aldaketak ematen ari dira... Baina, gurean nekaezin eta irmo jardun behar dugu”

nabariagoa eta handiagoa da, handiagoa euren krisi existentziala. Hala da, hori bizi du gaur egun Israeliek; ez du justifikaziorik ezta zuribiderik ere, jada ezin dio munduari bere eginbidea ulertarazi. Eta hori gero eta agerikoagoa da, eta onartzen dute “higadura-gerra” egiteko gaitasunik ez dutela ikusten den momentutik bertatik, azkenalako gerra azkar-azkar bat prestatu behar duten momentutik. Argi dago, horretan ere porrot egin dutela. Mundua aldatu egin da dagoeneko, eta ez dauka atzera bueltarik. Herri palestinarren nekaezintasuna eta irmotasuna den erronka

dute gaur egun aurrez aurre, bere helburuak lortu arteko gogo eta ahalegin horretan jarraituko eta iraungo duena. —Barrutik eta ondo ezagutzen dituzu hedabideak, eta aztertu duzunez Palestinaren kasuan (oro har Ekialde Hurbilarena) batzuek zein besteek eskaintzen dioten tratamendua, erabiltzen duten terminologia e.a. Zein da zure iritzia?

—Kontuan har egizue informazio-iturriak nazioarteko hiru agentzia handiren kontrolpean daudela, eta horrez gainera, hedabide boteretsuen %90-95 nazioarteko boteredunen eta mendealdeko kapitalaren eskuetan daude. Beraz, ezin espero hedabide horiek neutralak izango direnik, are gehiago informazioa itxuragabetu eta oker zabal dezatela pentsatu beharko gerasotzen dituztelako, eta horiek erabili ahal izatea euren interesen izenean eta mesederako, tresna ezin hobea direlako. Alabaina, teknologia berrien aurrerapenak euren

arma hori antidoto bihurtu du: hastape-netan euren mesederako eurek Internetez baliatu baziren ere, satellite bidezko telebista kateez ere, baina azkenean, horiek kontrako efektua lortzeko balio izan dute: gaur egun kontzientziazio-prozesu azeleratua egon da, orain dena ez dago euren esku, dagoeneko egoera ez da “aulkiko maisu” batzuen esanak besterik ez daudela, eta txiro-koitaduek haiek irrati-telebistaz esandako denak irensten dituztela. Gaur egun, esan dezagun, Internet edo komunikazio sozialeko hedabideak daude, skype eta beste; eta horiek balio handia dute orain. Hori zelanbait sortzen da herrialde askotako gizarte-maila askok duten jakin-minetik, batez ere aurreratuenetan, esaterako AEBen; gauzen egitasunari buruz eztabaidatzen delako, eta beraz, munduko gertakizunek izan ditzaketen euren arteko loturei begiratzen diete. Gaur egun, “Isisen terrorismoaren aurkakoko nazioarteko borroka” saltzen ari dira, eta berariaz ISIS islamiarra, AEBen, eta bere aldekoen, behineneko asmakuntza denean, Al-Qaeda bezala, horren beste adarretako bat baino ez denean. Eta orain hori erabiltzen ari dira, berriro ere, eskualdean euren esku-hartzea justifikatu ahal izateko. ○

Etorkizuneko zerumugari begira

—Zer igar daiteke, edo zer letorkie palestinarrei etorkizun hurbileko zerumugatik?

—Etorkizun hurbila estuki lotuta dago eskualde osoan ematen ari den aldaketa-prozesuaren bilakaerarekin. Herri palestinarrentzat ez dago balizko konponbiderik kontuan hartu barik inguruko herrialdeetako aldaketak, gitxienez Palestinarekin mugakide diren herrialdeetakoak: Egipto, Siria, Irak, Jordania e.a. Era berean, hori lotuta dago, bai ala bai, nazioarte mailako aldaketa geostrategikoein. Beraz, palestinar auziak ez du konponbiderik gaur gaurkoz. Proposatutako kontu oro, dela konponbide negoziatua,

estatu biren irtenbidea, eta halakoak, frogatu egin da kontsumorako baino ez direla, Israelen beharrei begirakoak... Era batera edo bestera, Israeliek jarraitzen du egoeraz probesten, egintza burutuak inposatuz, lur gehiago konfiskatzen, kolonia gehiago eraikitzen, palestinarrei bizi-tza are jasanezinagoa egiten, hori zail izan arren, bere lurraldetik alde egin dezaten; eremua husteko, gero nahierara erabiltzeko; hori baita euren helburu nagusia. Hala, horrek guztiak ez du ahalbidetzen, esan dezagun, palestinar auzian adostutako irtenbide bat egotea, konponbide benetan duina, eta bidezkoa. —Zein da mezu garrantzitsuena?

—Jendea ahalegin dadila, egin dezala informazioa lortzeko eta hedatzeko esfortzua, eskura dituen baliabide guztiak erabiliz: teknologia berriak, komunikazio sozialeko bitartekoak, elkartasun bideetatik, esaterako *El Boicot* liburuan Jesus Valencia bezalako lagunek jasotzen dituzten lekukotzen bidez, BDS kanpainen bidez e.a. Gero eta min handiagoa egiten ari zaizalako Israeleko Estatuari, halakoak nazioarteko auzitegien aurrean erakusten ari direlako egiten ari den gerra-krimenak, gizateriaren aurkakoko krimenak, e.a. Horrek guztiak laguntzen gaitu, herri palestinarren burujabetza eta autodeterminazio-bidea laburtzen.



Bidaietako klikak

Txikitatik Algortan, gero Romon, bizi den David Herranz argazkilariaren irudiak dituzue hauek. Zinemarako 'foto-fija' delakoak egitean datza bere lana, hau da, pelikula filmatzen dabiltzan bitartean horren testigantza jasotzen dituzten argazkiak egiten ditu, gerora dokumentaziorako edo publizitaterako erabiltzeko. Esaterako, Herranzek Portu Zaharrean eta inguruotan grabatutako *Un poco de chocolate* filmerako 'foto-fija'-k egin zituen. Ostera, oraingoan eta orriotan, hainbat bidaiatan egindako argazkiak helarazi dizkigu...

Info+: www.davidherranz.com

Argazkiak: **David Herranz**







Frackinga > haustura hidraulikoa ate joka Uribe Kostan

Zundaketak non egingo dituzten zehazteko kanpaina sismikoa eskatu dute

Hiru urtez geldirudien arren, aurrera darrai Geminis proiektuak. 2011n onartu zuten, Getxo eta Bermeo artean gas-hobiak ikertzeko. Dagoeneko, kanpaina sismikoa egiteko baimena eskatu dute, aurrerantzean zundaketak non egin behar dituzten zehaztu ahal izateko.

Frackingak hautsak harrotu ditu EAEn. Presio hidraulikoa baliatuz lurzoruko arrokak hautsiz gas ez-konbentzionala ateratzeko aukera asko ireki ditu, baina hainbat kolektibo eta herritar sistema horren aurka agertu dira, zalantza ugari sortu baitira sistema horren inguruan.

Aitor Urresti EHUko irakaslea eta Fracking Ez Bizkaia plataformako kideak azaldu duenez, “*frackinga gasa arbeletan zein hare trinkoetan harrapatuta dagoene-*



2011n onartu zuten Geminis

an enabiltzen da, eta ateratzeko, arroka hautsi behar da”. Horretarako, milioika litro ur injektatzen dituzte lur azpian presio handian hainbat gehigarri kimikogaz.

Ondorioz, presioagatik harria apurtu eta gasa ustia daiteke. Aipatu teknika nahiko erabili izan da azken hamarkadetan

Geminis proiektuak Getxo eta Bermeo arteko 47.940 hektarea hartzen ditu

AEBn, eta arazo larriak sortu ditu erabili diren tokietan, hala nola, lurrazpiko ur-kutsadura, lur-okupazio handia, inguruko herritarren osasun arazoak eta lurrikarak.

Haustura hidraulikoa Uribe Kostan
AEBn sortu bazen ere, frackinga mundu osoan zehar erabili nahi dute, tartean, gurean. 2011ko irailean, Espainiako Industria Ministerioak Getxo eta Bermeo



Gorbeian dagoeneko hainbat zundaketa egin dituzte

artearen gas-hobiak ikertzeko baimenak eman zizkion Frontera Energy Corporation S.L. enpresari. Proiektu horrek (Geminis) 47.940 hektarea hartzen ditu, lurrean zein itsasoan. Urrestiren arabera, proiektu horrek hainbat aldaketa izan ditu azken hiru urteotan, baina dagoeneko enpresa horrek kanpaina sismikoa bat buru-

tzeko baimena eskatu du, lur azpiko esturktura geologikoak aztertzeke. Hala, azterketa horregaz, 2016-2017 urteetan egingo dituzten zundaketak non egingo dituzten zehaztu ahal izango dute.

Teknikaren kontrako mugimendua
Azken hilabeteotan, haustura hidrauliko-

aren kontrako mugimendua nabarmena izan da EAEn, baita Uribe Kostan ere. Fracking Ez plataformak buru belarri aritu dira sistema horrek ustez sortzen dituen arazo guztiak hedatzeko eta salatzeke. Horregaz batera, frackingaren mamua ate joka zutela ikusita, 103.589 sinadura bildu dituzte Eusko Jaurlaritzak teknika hori EAEn debekatzeko lege bat onar dezan eskatzeko. Hainbat udal ere teknika horren kontra azaldu dira “*fracking gabe-ko herri*” izendatuz udalerria, Plentzia eta

Frackinga debekatzeko 103.589 sinadura batu dituzte EAEn

Sopela, barbarako. Bereiz, udalek ez dute modu askorik teknika debekatzeko, hori Espainiako Estatuaren eskumena baita. Hala ere, udalek herriko antolakuntzako plan orokorren bitartez hainbat oztopo jarri diezazkiekete enpresei, azaldu du Urrestik. Hala, Saioa Villanueva Sopelako alkateak adierazi duenez, “*publikoki gure aurkakotasuna adierazi dugu eta gure esku dauden bitartekoak jarriko ditugu frackinga geldiarazteko*”. ○

Aitor Urresti Gonzalez > EHUko irakaslea eta Fracking Ez Bizkaia plataformako kidea

“Teknika modu orokorrean Estatuak bakarrik debeka dezake, baina autonomia erkidegoek baldintzak ezarri ditzakete”

—Azken hilabeteotan frackingaren kontrako mugimendu handia bizi izan dugu gurean...

—Bai, hala da. Argi dugu frackinga sustatzen duten enpresek eta Eusko Jaurlaritzak teknika hau bultzatzen jarraitu nahi dutela. Horregatik argi dugu gizarte mugimenduek lanean jarraitu behar dutela proiektu hauek gelditu ahal izateko. Gainera, azken urteotan Araba aldera begira ibili garen arren, frackinga

Bizkaira ere heldu zaigu. Geminis proiektuan, Getxo eta Urdabai arteko kostaldea hartzen duenean, kanpaina sismikoa abiatuko dute hurrengo hilabeteetan. Hau, lehenengo zulaketak non egingo diren zehazteko egin beharreko ikerketa-lana da. Honek berriz ere erakusten du proiektuak martxan daudela, nahiz eta azken aldiak geldirik daudela iruditu.

—Fracking Ez Araba elkarteak bultza-

tuta, 103.589 sinadura bildu dira Eusko Jaurlaritzak haustura hidraulikoa EAEn debeka dezan eskatzeko. Zein da hurrengo pausoa?

—EAEko plataforma guztiak ibili gara azken sei hilabeteotan informazio-kanpainan murgilduta, sinadura bilketagaz batera, sistema honek sortzen dituen arazo guztiak hedatzeko eta salatzeke. Une honetan, zenbat sinadura bildu ditugun ofizialki egiaztatzen denean,

legebiltzarrak erabaki beharko du ea onartzen duen eta horren inguruko eztabaida abiaraziko duen ala ez. Jakin badakigu une honetan lege proposamena gure eskutik kanpo dagoela, legebiltzarrak duela azken hitza. Dena den, argi utzi dugu lortutako sinadura guztiakaz gizarteak ez duela nahi EAEn frackingik egitea. Azken finean, lortu behar ziren sinadura kopuruaren hirukoitza lortu dugu. Hala ere, plataformakook ez gara geldituko eta gure informazio-difusio lanean jarraituko dugu.

—Espainiako Auzitegiak atzera bota ditu Nafarroako, Errioxako eta Kataluniako legeak, frackinga lurralde horietan debekatzen zutena. Zertan eragingo du ho-

rrak Eusko Jaurlaritzaren erabakian?

—Ziur gaude Eusko Jaurlaritzak eta EAJk Auzitegi Konstituzionalaren erabakia erabiliko dutela aitzakia bezala frackinga EAEn ez debekatzeko. Hala ere, azken erabakia legebiltzarrak du, eta hemen ikusi beharra dago beste alderdiek hartzen duten jarrera. Dena den, auziak banaka-koak izan dira.

EAEn gure legea atera genezake, eta gero Auzitegiak bere epaia egin beharko luke. Horretaz gain, auziak ez dio autonomia erkidegoek ahalmenik ez dutela teknika honen inguruan. Teknika modu orokorrean debekatzeko Estatuaren eskutian dago, baina, aldi berean, aitortzen du autonomia erkidegoek nahi dituzten baldin-



tza tekniko eta ingurugiroko guztiak ezarri ditzatekela, teknika ahalik eta modu seguruenean aurrera eramateko. Hala, Kantabriak aitortu du ahalik eta baldintzarik zorrotzenak ezarriko dituela frackinga ekiditeko. Eusko Jaurlaritzak ere bide beretik jarrai lezake.○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Ikus-entzunezko lehiaketa

“Nire gorputza, nire erabakia” gaigaz lanak **azaroaren 5era** arte bidal daitezke



Lanak e-mailez bidali behar dituzue, helbide honetara: educa.bizkaia@medicushmani.es

Medicushmani Bizkaia elkarteak antolatzen duen Nire gorputza, nire erabakia ikus-entzunezko lehiaketa abian da. Horretara aurkeztuko diren lanek hurrengo gaia jorratu beharko dute: “Emakumeek gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzearen eskubidea aldarrikatzea, hemen zein begoaldeko berrialdetan, du helburu lehiaketa honek. Aurtengo edizioan, emakumeek pairatzen duten indarkeria sinbolikoa salatzean jarriko da arreta, indarkeria sinbolikoa emakumeen sexu eta ugalketa eskubideen urraketa bezala salatuz. Indarkeria sinbolikoa ikusezin, leun eta normaltasun handiko indarkeria mota da, baita gorputz-indarkeria baino agerikotasun gutxiagokoa, hortaz, gorputz-indarkeria baino iruzurrezkoagoa, zeren emakume eta gizonen arteko desberdintasunak mantentzen zein betierekotzen laguntzen duen”.

Ekimenak Bizkaiko Foru Aldundia-
ren zein Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza dauka, eta

azaldu dutenez, “aurten, taldeka parte hartu beharko da, 4 pertsonako taldeetan. Talde bakoitzak abesti bat hautatu beharko du; bideoklip edo ikus-entzunezko lan bat egin beharko du. Honetarako LipDub, Flashmob, Cup SongLIP edota bestelako musika ikus-entzunezko mota erabili ahal izango da...”. Antolatzaileek proposatu

«Lau pertsonako taldeetan parte hartu beharko da, eta aukeran dauden bi kantetako bat hautatu»

dituzten kantak, ondorengo bi hauek dira: batetik, Esne Beltza talde euskaldunaren “Zauriak” eta, bestetik, Idily Adalicia Merida eta Sacate Jag guatemaldarren “Mi cuerpo no se vende”.

Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da. Eta sariei dagokionez, haxe: “irabazleentzat Guatemalarako bidaia, bestalde 1.000€ baino gehiago emango ditugu saritan”.

Info+: www.medicushmanibizkaia.org

Itoizi gorazarre eginez...

Sopelan urriaren 17an eskainiko du kontzertua **Espaloian** taldeak



Taldekieak: Haimar Arejita, Gaizka Salazar, Alex Arana, Daniel Asua eta Ander Erzila. Sarrerak: 5 euro

Euskal pop-rock-progresibo delakoa-
ren talde esanguratsuenetakoa izan zen Mutriku-Ondarroako Itoiz, sareko gunean dioten legez, “Zeinek esango zien Ondarroako eta Mutrikuko mutil koxkor haiei, hainbeste urteren ondoren, oraindik ere gogoratu, bertsionatu eta, hein batean, betikotu egingo zituztela?”. 1974an Indar Trabes izenaz sortutako taldeak 1978an diskoa atera eta, bide batez, taldeari izena aldatzea erabaki zuten: Itoiz. Zortzi disko eta sona batu ostean, diotenez, “J.C. Perezek modu dotorean bukatzea erabaki zuen eta, horretarako, Getxon kontzertua egin eta zuzeneko album

bikoitza, Eremuko Dunen Atzetik Dabil..., argitaratu zuen taldeak 1988an”. Euren kantak, oraindino ere, gaurko gazteen ezpainetan dabilta, agian Itoizenak direna jakin ez arren... “Euskal Herri guztia den Itoiz taldearen musika-ondarea ezagutaraztea” asmoa duen taldea sortu dute “bost jarraitzaile sutsuk”, Itoizen Espaloian (1985) diskotik izena hartuz; eta “Itoiz taldearen abestiek daukaten freskotasuna eta indarra jendeari zuzenean helaraztea” dute helburu. Horregaz danagaz gozatzeko aukera izango duzue Kurtzio kultur etxean, Sopelan, urriaren 17an, 20:30ean. ○

diskoak

Erolution
Ghetto
Autoekoizpena



Durangaldeko taldeak estudioko bigarren lana kalean du, eta aurkezpen-biran dabil. Diskoa Anjel Katarinek nahastu eta masterizatu du, eta soul, funk, rock, reggae, tango doinuakaz estiloen dantzan murgiltzen dira. Diskoa Hitz liburu-dendan (Durango) edo zuzeneko emanaldietan lor daiteke, baita ghettotarrak.net gunean ere.

Tania Tank
Tania de Sousa
Taika Records



Bakarkako ibilaldian abiadura hartuz, lehenengo lana plazaratu du Tania de Sousa (Zestoa, 1987). Zuzenekoan eta lan honetako musika oinarriko lagun izan ditu Fermin Bouza (gitarak, sintetizadoreak eta koroak), Maitane Alonso (baxua) eta Ander Del Sol (bateria). Fermin Mugaruzak ekoitzi du diskoa.

Ideen guda
Oliba Gorriak
Autoekoizpena



Hirugarren diskoa plazaratu du Markina-Xemeingo taldeak, eta lan kolektibotzat jo dute, hainbat kolaborazio-gaz (22 abeslarien parte hartzea izan du) osatu dituztelako hamar abestiak Eneko Ostolaza, Ezkerra, Gaizka, Unai eta Josu Egiaz; taldeko abeslaria kartzelan dela osatutako lana izan da. Ohiko punk-rock, hardcore doinuak oinarri.

kontzertua >

Forest+Travellin'

Andy J. Forestek eta Travellin' Brothers taldeak alkarregaz zuzeneko eskainiko dute Kultur Leioan, Ambigu Kafean hain zuzen, Musika Gertuko Bluenight ziklo barruan. Emanaldia hilaren 17an, 22:00etan izango da, eta sarrerak 10 euro balio du. Kontzertu berezia izango da: Andy J. Forest (New Orleans, 1955) abeslari eta harmonika jotzaile ezagunak, beste hainbat musika-tresna ere jotzen ditu, zazpi LP eta hamabi CD plazaratu ditu daborduko, eta “blues musikari handiekin jo izan du, hala nola: B.B King, Bobby Blue Band, Johnny Shines edo James Booker”; alboan izango ditu taldearen 10. urteurrena ospatzen dabil-tzan leioztarrak, Magnolia Route aurkeztzen, Travellin' Brothers-ekoak: Jon Careaga, Aitor Cañibano, Eneko Cañibano, Ander Unzaga eta Isi Redondo.

Info+: www.kulturleioa.com

zuzenekoak >

Nirvanaren omenez

The Buzz Lovers Kordobako hirukoteak kontzertua emongo du barriro Donostian. Nirvanaren kanta ezagunenakaz gozatzeko aukera egongo da beraz, Kurt Cobain hil zela 20 urte bete direlako bira berezia egiten dabil-eta taldea. Urriaren 11n da hitzordua, Doka Kafe Antzokian; euren aurretik, 20:00etan, Rock Kam Broom taldeak joko du. Aurretiaz erosiz gero sarrerak 8 euro balio ditu, ostera, txarteldegian, 10 euro; www.kulturalive.com atarian ere salgai daude.

Info+: donostiakokafeantzokia.com

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Literatura-berbaldiak

Hilabete honetan Sopelan **Danele Sarriugarte**, eta Algortan **Itxaro Borda**

Zenbait literatur hitzaldi eta eztabaida antolatuko dituzte datozen hileotan Sopelan eta Getxon.

Batetik, Sopelako literatura-solasaldi-etako, sasoi honetako, lehenengo gonbidatua Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989) izango da. Urriaren 16an, 19:00-etan Kurtzioko kultur etxean, idazle gazteak berbagai izango du *Erraiak* bere lehenengo nobela: “*Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberriak; emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, inakurleari, obsesio bihurtuta. Horregatik, ezohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, (...) aurreiritzirik gabeko barne bakarritzeta batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote harremanak xehatuko*

«Hitzorduak dira hilaren 16an Kurtzion, eta hilaren 23an Aldai Patronatuan»

ditu (...). Narratzaileak egurra banatzen du ezker-eskuin, eta bere buruarentzat ere, tonu ironiko nabarmenarekin. Egur ona, sutarako balio duena...”

Bestetik, Itxaro Borda (Baiona, 1959) eta bere *Boga boga* nobela du protagonistak UKITXek urriaren 23rako (19:00; Aldai Patronatuan). Amaia Ezpeldoi detek-



Danele Sarriugarte Sopelan izango da

tibea euskaldun ezagunaren bosgarren abentura, bizipena, kontakizuna eta beste izango dira hizpide: “*Baionan zabor biltzaile lanetan jarduteaz gainera, aspaldiko desagertze bat argitzen tematuko da Amaia Ezpeldoi. Jana Elgebeltz garaztarra azkeneko ikusi zuten, Santizpiritu zubian, 1985eko Baionako festetan; eta pixkanaka konturatuko da Jana Elgebeltz: klandestinitatean engaiatutako ekintzailea.*”


Urte amaiera bitartean, baieztatzeko egon arren, litekeena da hurrengo zitak Sopelan azaroaren 13an eta abenduaren 18an izatea, biak 19:00etan; eta Algortan, azaroaren 19an, 19:00etan. ○

liburuak



Bai Ausarta dela Igela
Max Velthuis / Patxi Elizegi
Ttartalo

6-8 urte bitartekoei begirako lan honek Max Velthuis ilustratzaile eta idazleak asmatutako pertsonaia du protagonista: Igela. Mende laurdena bete barri du 50 hizkuntzataraz itzuli den bilduma honek, eta orainsu, edizio gaurkotua aurkeztu du TTartalak.



Plazeraren gau ilunekoak
Scott Fitzgerald
Elkar

Garazi Arrulak eta Iñigo Roquek prestatu dute Francis Scott Key Fitzgerald (1896-1940) idazle estatubatuararen ipuin antologia: “idazlearen bizitza eta ibilbidea laburbiltzen” dituen. “*Gerra batean borrokatu ziren, eta irabazi (...) Bizitza alferrik galdu duenaren sentipenarekin amaitu...*”

[kirola]

Amaia Arancibia > Berango Eskubaloia

“Gure asmoa kirola sustatzea da, batez ere neska gazteen artean”



www.berangoeskubaloia.org

Berango Eskubaloiak hiru talde berri sortu ditu aurtengo denboraldirako. Hilabeteko ibilbidea bakarrik daroaten arren, Urdulizko taldearen eguneroko laguntzagaz proiektua aurrera eroatea lortu dute, baita itxaropenak gainditu ere. Euren asmoa neska gazteen artean kirola sustatzea da, baita herriari ikustaraztea nesken kirolak baduela bere lekua ere. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko, Amaia Arancibiagaz egon gara.

—Irailaren 20an sortu berri zenuten emakume jubenilen eskubaloia taldea aurkezteko jaialdia egin zenuten...

—Bai, nesken talde bat sortu genuen Berangon, baina gure asmoa ez zen bakarrik talde hori aurrera eramatea, kirola bultzatzea baino, bereziki neskena. Horretarako, udan iazko ludotekako umeakaz ariketa batzuk egin genituen, eskubaloia non-dik norakoak ezagutarazteko. Ondoren, irailaren 20ko deialdia egin genuen, kirol honen inguruko giroa pizteko. Ohar batzuk prestatu genituen, eta etxex etxe ba-

natu genituen. Hala, nahiko jende hurbildu zen jaialdira, harrituta gelditu ginen. Kiroldergia ia beteta zegoen eta eskubaloian hasteko nahia zuten hainbat neska mutil ere etorri ziren. Hala, aurkezten genuen taldeaz gain, beste bi taldetxo sortzeko aukera izan genuen. Nik ezin nuen sinetsi, espero genuena baino askoz gehiago lortu genuen.

«Hiru talde ditugu orain: benjaminena, infantilena eta jubenilena»

—Beraz, egun horretatik talde berriak sortu dituzue?

—Bai, beste bi talde: benjaminena, neskez eta mutilez osatutakoa; eta infantileko neskena, eskola mailakoa. Bestalde, guk sortutako taldea dago, jubenilen mailakoa eta federatuta dagoena. Egia esan, kirol mailan ez ditugu emaitzak zuzenean lortuko, baina, esan bezala, gure asmoa kirola bultzatzea da, neskek batez ere kirola egiten jarraitzeko epe luzean eta herriak ikusteko ere nesken kirolak baduela bere lekua. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirola moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Eduardo San Andres

Aurrerantzean, Jentilkoba atalagaz txandakatuz, Zientzia atala abiatu dugu. Bertan agertuko diren testuak Eduardo San Andres matematika irakasle sopoloztarrak idatziko ditu; hilean behin, zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu.


Solido platonikoak

Balmasedako hiribilduan, Bizkaiko Enkarterrietan, eskultura bitxia behatzeko aukera paregabea daukagu. Manuel Gomez de Arenaza biologoak egindako eguzki-erloju bikaina.

Makina zoragarri hau urteko edozein arotan ordua emateko gai da zehaztasun ikaragarriarekin, diseinuan, egileak trigonometria, astronomia eta geometria arloetan ezaguera sakonak erakusten ditu. Erlojuaren elementu azpimarragarrienetakoa, apaingarri hutsa bada ere, solido platoniko direlakoan harrizko erreprodukzioa da.

Poligono bat aldeak deitutako lerro zuzenen bidez mugatutako figura itxi bidimentsionala da. Alde horien luzera berdina bada, orduan poligono erregularra deritzo. Hortaz, triangelu aldeakidea (3 alde), karratua (4 alde) edo pentagonoa (5 alde) izango ditugu, besteak beste. Jarraienez gero, alde kopuru erraldoiko poligonoak marraztu ahal izango ditugu, eta aldean luzera gero eta txikiagoa izango da eta poligonoak gero eta biribilaren tanke-ra handiagoa hartuko du. Izan ere, ikus dezakegu zirkunferentzia bat alde kopuru infinitoa duen poligono bat bezala. Argi dago poligono erregular kopurua mugagabea dela.

Joan gaitzen orain hiru dimentsioetara. Poligono baten baliokide tridimentsionala poliedro bat da. Eta poliedro erregularrak aldeak berdinak dituztenak dira (orain aldeak aurpegiak dira). Poligono erregularrak ez bezala, poliedro erregularrak ez dira mugagabeak, eta bost baino ez



Balmasedan dago erlojua

daude, solido platonikoak dira: tetraedroa (4 aurpegi triangeluar), kubo (6 aurpegi karratu), oktaedroa (8 aurpegi triangeluar), dodekaedroa (12 aurpegi pentagonal) eta ikosaedroa (20 aurpegi triangeluar).

Euklidesek bost baino ez daudela probatu zuen, baina askoz ere lehenago deskribatu zituen Platonek, eta zenbakien eta

«Erlojuaren elementu azpimarragarrienetakoa, apaingarri bada ere, solido platonikoen harrizko erreprodukzioa da»

elementu kosmikoen arteko harremanak bilatzeko tradizioa hasi zuen. Joera horrek XVII. menderaino iraun zuen zientzia moderno eta arrazionala hasi zen arte. Testuinguru horretan, solido platonikoak garaien ezagunak ziren elementuekin parekatzen ziren, horrela, tetraedroa sua zen, ku-

boa lurra, ikosaedroa ura, oktaedroa airea eta dodekaedroa eter zen, zerua eta konstelazioak osatzen zituen materia. Geroago, XVI. mendean, Kepler-ek ere harreman bat topatu zuela pentsatu zuen solido platonikoen erradioen eta planeten orbiten artean. Esan bezala, elementu geometriko eta kosmikoen arteko asoziazio mistiko horrek mendebaldeko zientzian ere izan zuen eragina.

Balmasedako erlojuak ez du pilarik behar. Funtzionatzeko behar duen energia-iturria eta Newtonen bururaino sagar bat bultzatu zuen berbera da. Egileak inskripzio bat utzi digu eskulturan erlojua noiz gelditu litekeen azaltzeko:

“Donec, impares ad iter faciendum quin integram naturalem realitatem perturbemus, cum motibus terrae ludamus”.

“Naturala den guztia aldatu gabe ibiltzeko gai ez izanik, luraren mugimenduari ere jolasten garen arte”. ○

Begoña Lekanda > euskara zinegotzia

“Zaila da kohesioa lortzea... familiak, herritarrak murgiltzea da erronka”

Begoña Lekanda Garcia jatorriz algortarra bada ere, Goierri auzoan bizi da gaur egun. Hasiera batean, legediaren munduan sartzea hautatu zuen Lekandak, eta Zuzenbide ikasketak burutu zituen bere nahiak asetu ahal izateko. Hala ere, denboraren poderioz, herriko garapenean laguntzeko gogoia etorri zitzaion. Hala, politikaren bidean sartzea erabaki, eta Barrikako Euskara zinegotzi lanetan dihardu gaur egun tokiko Udalean.

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Barrikan?

—Nahiz eta 2011n egindako kale-neurketaren emaitzak onak izan, euskararen erabilera aldetik ez dugu igoyerarik ikusten udalerrri honetan. Gainera, gure herriaren antolamenduak ez du laguntzen, auzoak ez daude elkarren ondoan, eta ondorioz, zaila da bertako biztanleen artean kohesioa lortzea, herritar batzuk ez baitira bertan bizi.

Bestetik, herri honetan bertan ez dago ikastetxerik, eta udalerriko neska-mutilek beste herri batzuetako eskoletara joan behar dute bertan ikasketak burutzera. Hala ere, ume gehienek D eredua hautatzen dute, hau da, euskarazko eredua.

Hori guztia dela eta, Barrikan bultzatzen ditugun ekintza ugarian familiak eta herritarrak oro har murgiltzea eta parte hartzea da gure erronkarik handiena. Jakin badakigu zaila dela, baina udalerriko elkarteak laguntza jasotzea espero dugu, besteak beste.

—Hori lortzeko zeintzuk egitasmo edota proiektu jarri dituzue martxan?

—Hori guztia lortzeko, familien eta Barrikako herritarren artean arnasguneak



Begoña Lekanda, Barrikako zinegotzia

sortzeko eta elkarren artean ezagutzeko, “Berbalagun” eta “Gurasolagun” izeneko programak jarri ditugu martxan. Horretaz gain, hainbat euskara ikastaro ere abian jarri ditugu. Gainera, Udalak euskaraz ikasteko diru-laguntzak ere ematen ditu Barrikan erroldatuta daudenei zuzenduta daudenak.

“Barrikako herritarren artean arnasguneak sortu nahi ditugu, elkar ezagutzeko”

Bestalde, familiak eta haurrak helburu dituzten beste hainbat ekintza ere antolatzen ditugu Kultur Etxetik, hala nola, familia zinema eta irakurketa sustertzeko tailerrak. Gainera, informazioa eta zabalkundea ele bietan argitaratzen dugu. Uda aldean ere neska-mutilentzako udalekuak antolatzen ditugu, umeek aisialdian ere euskaraz bizi daitezen.

Barrika

Biztanle kopurua
2006an 1.387 biztanle.
2011n 1.530 biztanle.

Euskadunak
586 euskaldun, %42,2 (2006)
625 euskaldun, %40,8 (2011)

Ia-euskaldunak
336 ia-euskaldun, %24,2 (2006)
625 ia-euskaldun, %30,9 (2011)

Erabilera datuak
Datu fidagarrienak kale erabilerari dagozkionak dira:
%20 (2011)

Harremanetarako:
946 579 276
euskara4@uribekosta.org

Info+:
www.barrika.net

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitez.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

Café-Bar
Plentzia

C/Iturbide, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com

berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

**BODEGUILLA
BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

**KAI EDER
JATETXEA**

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ**

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

**txakoli
mota
ganeTx.**
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESA, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

fugu
sushi take away & delivery

Bat batean eginda japoniar eta tradizionalen
www.fugulusarenas.com

Evaristo Churrua Kalea 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

LA LURREN
MUSIKA

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Eusko label burruntzia

Bertoko produktuakaz egindako pintxoak



Pintxo ugari aurki daitezke Lurren tabernan, hotzak zein beroak

Sopelako Ripa kalean jarraitzen dugu, Lurren tabernan. Egun eguzkitsuetan to- kiko terrazan garagardo kafea bat edo beste edozer hartzeko leku ezinhobe da. Euria ari duenean ere eztarria bustitzeko leku aproposa eskaintzen du lokalak, pintxoak betetako barraren inguruan dau- den mahaietan eserita, goxo-goxo. Patata- tortillak, mota askotako otartekoak eta pi- perrak. Hotzak eta beroak. Denetarik aur- ki daiteke barra horretan. Horietatik guztietatik, tabernaren izena daroan bu- rruntzi koloretsua aukeratu dugu, berto- ko produktuakaz egindako pintxo zapo- retsua: “Lurren Piparra”.

Mokadu hori prestatzea oso erraza da. Lehenik eta behin, zotz bat hartu eta osa- gai guztiak bildu behar ditugu, ondoren

danak banan-banan zotzean ziztatzeko.

Hasteko, antxoaz beteriko oliba bat sastatuko dugu, ondoren Kantauriko bo- karta xerra bat eta, horren ondoren, piki- llo piperra. Jarraian, tipolina, beste pikillo piper eta gatzetan jarritako antxoa bate- gaz. Horren ostean, bigarren oliba sartuko dugu, burruntzia ixteko. Azkenik, piper gorritz, piper berdez eta tipolinaz egindako ozpin-olioa botako diogu gainera. Kito! Bertoko produktuakaz egindako burrun- tzia osatuta daukagu, ezin koloretsuagoa eta zaporetsuagoa. Anima zaitetz etxean egitera! On egin! o

Osagaiak: antxoaz beteriko olibak, pikillo piperra, Kantauriko bokarta, gatzetan jarritako antxoa, piper gorritz, piper berdea, ozpin-olioa eta tipolina

uk **zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

**Croissanterie
Brioche**

MONTE JAIA 1
48997 GETXO (BIZKAIA)
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM

94 460 86 48

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluz e.z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Kopiak SALGAI

UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Eguzkizale porrokatua zara eta azaleko kolore beltzarana luzatzeko asmoz, hondartzara zoaz oraindino. Solariunerako bonua ere erosi duzu. Zurea ez da obsesioa izango?

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azerketakaz hasi zara daborduko? Ikasleen bizitza zein krudela den! Lasaitasunez hartu, oraindino egiteko daukazazu-eta batxilergoa, karrera, masterra eta doktoregoa.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Herri txiki bateko jaietara joango zara ea aspaldiko ezagun batez egingo duzu topo, orain bertan bizi da-eta, behiak zaintzen. Badakizu, bizitzaren gorabeherak...

AITZURRA




(Martxoak 21 apirilak 19)
Ganbaran, kutxa zaharrak maitzen, bost mila pezetako billetea topatuko duzu. Baina ohartuko zara gaur egun euro gixi batzuk besterik ez direla: zeinen arin iragan den denbora...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Abuztuan hotz eta udagoien hasieran bero, armairua bete-beteta daukazu urtaro danetarako arropagaz. Egoera ulertuko duenik ez dago, hau eguraldi zoroa hau!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ezagun batek jai berezi batera gonbidatuko zaitu, luxuzko etxe handi batean. Mozorrotuta joan behar duzu eta urduri zaude, baina misterioz betetako gau ederra igaroko duzu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Urtero legez, urriagaz batera basaran bila joango zara mendira, pila bat ale dagoen toki ezkutu horretara, ondoren patxarana egiteko etxean. Kontuz ibili, agian norbait atzetik joango zaizu...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bidaia gustuko dituzu eta azarorako ari zara bilatzen bat luzea, paradisu urrunen batera, zaila badaukazu ere. Beno, batzuetan begiak itxi eta amets egitea bezalakorik ez dago.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Opari bat egingo dizute laster: txakurkume bat. Baina zuk ez dituzu oso gustuko animaliak, are gixiago etxean. Halere, txakur koitaduagaz errukitu eta hurrengo 15 urteetan zainduko duzu.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Urteak betetzera bazoaz, zorionak, eta bete barri badituzu, izan zoriontsu! Bizitzan gozatu behar da aukera dagoen bitartean eta urtebetetze-askariak oso aproposak dira horretarako.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Mahatsa batzen ibili zara irail osoa, makurtuta, eta bizkarrean min hartu duzu. Lagunek esan zizuten, bada, daborduko ez zaudela horren gazte; orain pilulak eta manta elektrikoak...

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Aste batzuk barru ordularia aurreratuko dugu eta egunak laburtuko dira. Guziak daude triste, zeu izan ezik: zure negu preziatua badator eta eskiak garbaratik ateratzeko unea iritsi zaizu.

ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTARO TRINKO SEMIPRESENTZIALA

TEORIA PRESENTZIALEKO DATAK:
Azaroak 7-8-9 eta 14-15-16 (BI ASTEBURUTAN!)

TOKIA: **CORNEJOKO ATERPEA**

PREZIOA: **425€**

- Aseguruak
- Alojamentua eta mantenu osoa aterpean ikastaroan zehar
- Irakasle goa eta materiala
- Praktiken jarraipena
- Lan Poltsa



Diploma ofiziala:



Informazioa eta matrikula:
659 659 902 - noemi@pinpoil.com


Ahuntza beti larrera



Laura Siles, 2014

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Abilezia, trebetasuna, antzea. 2. Garratz, bizi. Italiako ipar-mendebaldeko hiria, Piemonte eskualdeko hiriburua. 3. Bigarren bokala. Nafarroako Ibargoiti ibarreko herri batekoak. 4. Barazki lekadunak. Haurren hizkuntza, edaria. 5. Hezurrez mintzatuz, lokatu, bere lekutik mugitu. Erbioaren ikur kimikoa. 6. Begira. Ura jausten den aldapa, isuria. 7. Urdeak zaintzen ditu. Bizkaieraz, gehiegi, sobera. 8. Zain, esperoan. Baseriko hegazti ar. 9. Erraz aldatzeko joera duena. 10. Arretaz arakatuak, arretaz miatuak.

Goitik behera

1. Eraikuntza lanetan sarri erabiltzen den ore. Iodoaren ikur kimikoa. 2. Bokalek. Behera etorriak, jausiak. 3. Izeba. Norbaiten heriotzak sortzen duen atseka-bea. 4. Oiloaren okela. Dosia, bokalik gabe. 5. Tona, baina labur-labur adierazita. Egokierak, paradak, aukerak. 6. Ate hitz elkartzeetan. Grekoen eta erromatarren soineko zabal eta luzea. 7. Gipuzkoan, zurumuru. Bibliako pertsonaia. 8. Interjekzioa, purra. Bizkaieraz, argi. 9. Nigerko hiriburukoa. 10. Europa eta Asia artean banatutako estatuko hiriburuko. Nor deklinabide kasuaren atzizkia.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

UK honetan,
nori egin diogu
elkarrizketa
luuuuzea?

> Aurrekoaren erantzuna: Sabino Arana, Leioa
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA
Zaindu
Osteopatia-Fisioterapia
Doctor Landa 4, SOPELA.
Tel: 94 602 67 79
zaindu
Eskuzko Terapien Zentroa
Osteopatia - Fisioterapia

Non bizi da Mundukatuak-eko laguna?

- **Houstonen**
- **Washingtonen**
- **Bostonen**

> Aurrekoaren erantzuna: Garoa, iratzea
> Irabazlea: **Laida Fuertes**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA
berria
Astakiloen abenturak
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma
Astakiloen abenturak
Bilboko Argitaletxeak

GITARRAJOLE PLENTZIARRAK, 30. HAMARKADA EDO

Gitarra eskuan, baina musikari ziren ezin baiezatu; adarjole finak zirela, zalantza barik! Futbolean jokatzeko zutela ere jakin dugu, baina txantxa-zaletasunaren bidetik atera ei zuten argazkia. Plentziako jatetxe ezagun biko garaiko ugazabak ere irudian dira, jatetxeen izenetik hartu ei zuten goitizena ere... Trauskilkeriak maite zituen lagun-taldea zen, edo horren sona behintzat bazuten! o

Zutunik: Cesareo Losada, Jesus Mari Mentxaka eta ? Agirre "Perana".
Makurtuta: Galino, Luis Milukua eta Jesus Olalde "Palas".



Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Irene Martinez**



54 UK



IPARRA GALDU GABE!



2014

VI Jornadas sobre Iparralde

Urriak 23 Octubre, 19:00 Aldai Patronatua Antolatzailea / Organiza: EGIZU	ITXARO BORDA BOGA BOGA liburuaz ITXARO BORDA sobre su último libro BOGA BOGA
Uriak 28 Octubre, 19:30 Getxoko Elkartegia	MUNDUKO LEHEN GERLA IPARRALDEAN SAMINA, BIZKAIAAN ABERASTASUNA LA PRIMERA GERRA MUNDIAL Y SU INFLUENCIA EN IPARRALDE Y EN BIZKAIA Hizlaria/Ponente: Eneko Bidegain
Urriak 30 Octubre, 19:30 Fadurako kafetegia Antolatzailea/ Organiza: UK eta Albe	BERBETAN ETA BERTSOTAN ODEI BARROSO ETA XABI PAYA IPARRAZ ETA HEGOAZ ODEI BARROSO Y XABI PAYA SOBRE IPARRALDE Y HEGOALDE Iparralde-Hegoaldearen egoera, hartu emanak, antzekotasunak, zubiak...
Azaroak 4 Noviembre, 20:00 <i>The Piper's Irish Pub</i>	GASTROKONTZERTUA Philippe de Ezcurra, Kattalin Indaburu eta David Arriola Ohiko eta gaurko euskal kantuak dastatu eta Iparraldeko mozkin goxoak abestu Canciones vascas de siempre y de hoy + degustación de productos de Iparralde.

